

Karkara

karkara.eus

❧ Orioko eta Aiako aldizkaria • 2018ko otsailaren 23a • 392. zenbakia



Emakumeok* planto

Emakumeak grebara deitu ditu mugimendu feministak martxoaren 8an. Zaintzaz, lanaz eta berdintasunaz aritu gara herriko lau emakumerekin.

03

Puntua jarrita
Bittor Andres

14

Elkarrizketa
Kamel Ziani

20

Argazkiak
Oriaren jaitsiera

30

Elkarrizketa
Saioa Perona

garay
manufacture

**SUKALDEAK
PROIEKTUAK
ERREFORMAK**

www.garay.eus

Olabidea aldea 1
(Errotaberri Industrialdea)
20.800 Zarautz

943 13 31 09

Sagasti
LEIHOAK

Tel. 943 13 00 77 - Fax 943 53 75 30
sagasti@sagastileihoak.com
Arriaga Kalea, 83
20810 Orrio

Kalitatzeko materialak
PVC eta aluminioa - Isolamendu termiko eta akustikoa
Salmenta osteko zerbitzua

www.sagastileihoak.com

HAIZE BERRI
taberna-jatebura-kafetegia

Plater konbinatuak,
bokatat,
hamburgesak,
rapiak,
eguneko menua...

eta etxera eramateko
zerbitzua!

943 831 623

Orriko kalealdean, Enbasa I

*ostiralean
pintxo
potea?*

Orriko kalea, 2
Tel. 943 305 019 - ORIO

KOLON TXIKI
gari sagin
jateak

Herriko Emparantza, 4
ORIO

Tel. 943 83 00 44

Zaragueta
Herri Eskola Orrio

telefonoa: 943 89 40 52
e-mail: 012137aa@hezuntza.net

**ASADOR
XIXARIO**

Enbasa Kalea, 2
Tel. 943 305 019 - ORIO

INDO
Garraio frigorifikoa
NAZIONALA ETA NAZIOARTEKOA

Ubegun industriagunea, 4
Tel. 943 894 024
Fax. 943 130 144
20809 AIA - ORIO



IZARRA ELEKTROGAILUAK

BERRIA

Orain duzu AUKERA
**SUKALDEKO
ALTZARIAK**

aurrekontuak zure neurria
konpromisorik gabe
etorri eta galdetu

Kalea Oñate, 44 - Tel. 943 83 38 81
20899 Orrio (Gipuzkoa)

Fontaneria Iturgintza

- Komun eta sukaldeen erreforma
- Galdara eta termo elektrikoak instalazio
- Ur-jarioak aurkitu eta konpondu
- Bainujentzia kendu eta dutxa jartzea
- Gremioen koordinazioa, dekorazioak
- Zoru erradiazioak

www.fontaneria-fontana.com

Fontana
iturgintza

Plaza Endaia n°1, 20810 - Orrio
fontana-jul@hmail.es
641 262 828

ITURGINTZA - GASA - BEROGAILUAK

**JARRI PUBLIZITATEA
KARKARAN**

688 859 682

392

Karkara

Orioko eta Aiako aldizkaria

Kultur etxea
20810 Orio
943 83 15 27

karkara@karkara.com
www.karkara.com

Editorea

Karkara taldea
 kultur elkarte

Erredaktore burua

Miriam Garcia

Erredakzio taldea

Jon Agirresarobe
 Onintza Aiestaran
 Iñigo Exposito
 Jon Garate
 Maria Maya
 Elizabete Manterola
 Intza Unanue
 Rikardo Uzkudun

Publizitatea

Sonia Albizu

Ale honetako**kolaboratzaileak**

Bittor Andres
 Mirari Arriola
 Egoitz Dorronsoro
 Eider Goiburu
 Iñaki Iturain
 Eider Salegi

Diseinua

Saioa Perona

Banatzaileak

Ander Garcia
 Endika Ruiz (Orio)
 Eli Irureta (Aia)

Inprimategia

Gertu Koop. E. (Oñati)
 Lege gordailua SS-346/90
 ISSN 1132-1105
 Tirada 3.450 ale

KARKARAK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen edota iritzien erantzukizunik. Karkaran argitaratutakoa berreman daiteke, osorik edo zatika, baldin eta iturria aipatzen bada

TOKIKOM

**LAGUNTZAILEAK:**

Aiako Udala



Orioko Udala

Gipuzkoako
Foru Aldundia**PUNTUA JARRITA****BITTOR ANDRES** (DOINUA: ORAIN HASI BIHAGU)**1****Mendizaletasunik ba al da herrian?**

Bai, horregatik dago lasterketa abian asko gozatzen dut nik mendira bidian, maite nautenak ditut maiz aldamenian.

2

Niretzat ezagun da Zegama-Aizkorri azken aldi(a)n egin dut estu eta larri, maiz izaten naizenez natura egarri lasaitasuna(re)n bila joaten naiz sarri.

**Hurreng bertsolaria:**

Leire Vitoria

Puntua:

Martxoaren 8a
 ospatzen al dezu?

Publizitatea kontratatzeko:

Karkara

688 859 682 (Sonia)

publizitatea@karkara.com



karkara.eus

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILAK
 (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

Udalaren oharra kooperatiba erregimeneko etxebizitzaren iragarkia dela-eta

2018ko urtarrilaren 26ko Karkara aldizkariaren azken-aurreko orrialdean orri osoko iragarki bat argitaratu da *Orion bizi nahi?* izenburupean, informazioa ematen duena kooperatiba erregimenean ustez egingo lirakeen etxebizitza batzuei buruz..

Iragarki horren harira Orioko Udalak honako hau jakinarazi nahi du:

1. Iragarkian ematen den informazioa guztiz okerra da eta herritarrei eskatu nahi diegu ez dezatela inolako konpromisorik hartu informazio horren baitan.

2. Udala jarri da harremanetan iragarkiaren bultzatzailearekin, informazio oker hori zabaltzeari utzi diezaion.

3. Udalak partzela bat dauka Munto eremuan, babes publikoko etxeak eraikitzeko; baina partzela horren garapena azterketa-fasean dago momentu honetan. Behin azterketa-fasea bukatzen denean, Udalak egingo ditu dagozkion deialdi publikoak, herritar guztientzat. • **Orioko Udala**

Gutunerako oharra

Argitaratu nahi diren gutunak KARKARARA bidali daitezke posta elektronikoz honako helbidera: karkara@karkara.com edo erre-dakziora eskura ekarri -Orioko edo Aiako Kultur Etxean- edo postaz bidali. KARKARAK ez du argitaratuko izenik gabe datorren gutunik. Egileak hala nahi badu, ezizena-ekin argitaratuko dugu; baina, beti, guk egilea nor den jakinda. Gutunean norbait aipatzen baldin bada eta pertsona horrek gutunaren egilea nor den jakin nahi badu, KARKARAK esan egingo dio.

KARKARAK bere egiten du eskutizak laburtzeko eskubidea.

Plantilla Organikoa eta lanpostuen zerrendari baitza ez ematearen zergatia

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren Osokoak 2016ko maiatzaren 26an egindako bilkuran 2014ko urteari zegokion Orioko Udalari buruzko fiskalizazio txostena behin betiko onestea erabaki zuen. 2017ko otsailaren 16an Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Txosteneko *Legea betetzeari buruzko iritzia* atalean Langileriaren

zatiko 3. puntuak honela dio hitzez hitz:

Lanpostu zerrendan jasotako 28 lanpostuez gain, 2014ko abenduaren 31n 40 langile zeuden egiteko iraunkorrek betetzen: 20 langile kontratu mugagabeekin; 10 langile aldizkako finko uda sasoirako eta beste 10 langile, obra kontratu zaharrak zituztenak -2012-2012- edo amaiera data-rik gabekoak. Kontratazio hauek LZn nahitaezkoa den aldaketa izapidetu gabe gauzatu ziren, lanpostu berriaren beharra justifikatuko zuena eta egitekoak eta ordainsariak ez ezik, lanpostua egoki betetzeko betekizunak ere zehaztuaz. Aldaketa hauek Udalbatzak onartu behar zituzkeen eta erabakia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu -EFPLren 13tik 17ra bitarteko artikulua eta TAOAren 22tik 90era bitarteko artikulua-.

Akatsak konpontzeko denbora egon da txostena egin zenetik behin betiko onartu zenera eta orain urtebete argitaratu denera, gutxienez zuzentzen hasteko. Ez da horrela gertatu edo behintzat ez da agerikoa pausuak eman direnik.

Hori horrela, Aurrekontuekin batera onartu beharreko Orioko Udalaren 2018rako Plantilla Organi-

Orioko Herri Ikastola

Guraso Kooperatiba

ABESLARI KALEA, 8

TEL: 943 83 47 04

FAX: 943 13 09 38

orio@ikastola.net

www.oriokoikastola.net

obrak proiektuak errehabilitazioak txostenak eraikuntza zerbitzuak ITEak eraikinen mantentzea

XS arkitektura

borja agirresarobe lopelegi
herriko-barratza 6, beheko
20800 zarautz

6 3 5 7 3 1 7 2 2
9 4 3 1 3 4 3 5 8

xs@xsarkitektura.com

ZALDUONDO
HIGIEZIN AGENTZIA

ITXEA ALOKATU EDO SALDU
NAHI BADUZU ETOR ZAITEZ GURERA

- Aholkularitza
- Bilaketa personalizatuak
- Alokairua
- Salmenta

943 104 709
674 300 523

Foruen kalea, 9
20800 Zarautz
info@zaldundo.com

www.zaldundo.com

koa eta lanpostuen zerrendaren bozketan ezezko botoa eman beharko genuke baina Orain taldea abstenu egingo da, urteetan eskatu duen arrazionalizazio plana une honetan LKS enpresa egiten ari delako eta ez duelako oraindik bukatu.

Lanaren lehenengo helburua *udaletxeko antolaketa egitura eta plan-tilla aztertu* da eta emaitza ikusteke dago. •**Orain plataforma**

Aiako LUR ALKARTASUNA S. C. DE CONSUMO-ren jokabidea

2012. urtean Aiako LUR ALKARTASUNA S. C. DE CONSUMOko bazkide eta diruzaina zenak, koope-

ratibak likidezia falta zuela ikusirik, bi mailegu egin zituen kooperatibaren alde urtebeteko epean interesik gabe itzultzeko baldintzarekin. Maileguen zenbatekoa 20.000€koa zen. Gainontzeko bazkideak konfiantzazkoak zirelakoan, mailegua hitzez adostu zuten, hau da, inongo dokumenturik sinatu gabe.

Sei urte igaro dira maileguak itzultzeko adostutako epearen iraungitzea eta oraindik ez dizkiote mailegu horiek itzuli. Hainbat saiakera egin ditu Kooperatibako batzordearekin harremanetan jartzeko, onarpen agiridun gutun anitz bidali ditu baina sekula ez du erantzunik jaso. Horrez gain, kooperatibaren estatutuen kopia, kooperatibako

martxaren berri izatea eta erregistro liburuak ukatu dizkiote.

Zoritxarrez egitate hauek preskribatu egin dira eta ondorioz ezin da ezer egin. Bitxia dirudi gaur egun legeak betearazteko arduradun direnak kooperatibako batzordeko kide direla kontuan hartuta.

Aiako LUR ALKARTASUNA S. C. DE CONSUMOko bazkide honek lan izugarria egin du kooperatibaren alde eta, guzti honek pena eta amorru izugarria ematen badio ere, ez dio inori ezer txarrik opa. •**Miren Alberdi Aizpurua**

HILDAKOAK

- Mari Cruz Larrañaga Iribar, Aian, otsailaren 20an. 82 urte.
- Luis Irastorza Zabala, Orion, otsailaren 19an. 87 urte.
- Anttoni Eizmendi Goikoetxea, Aian, otsailaren 18an. 63 urte.
- Manuel Uranga Osinalde, Aian, otsailaren 17an. 87 urte.
- Felix Urain Ibarlucea, Orion, otsailaren 16an. 78 urte.
- Antonita Murua Garmendia, Orion, otsailaren 15ean. 84 urte.

- Sabino Etxeberria Segurola, Orion, otsailaren 11n. 82 urte.
- M^a Dolores Caballero Leon, Orion, otsailaren 10ean. 93 urte.
- Ricardo Peiro Lamana, Orion, urtarilaren 27an. 78 urte.
- M^a Jose Urkizu Eizagirre, Orion, urtarilaren 23an. 57 urte.

JAIOTAKOAK

- Ahmed Lamine Ndoye Larrañaga, Orion, urtarilaren 26an.

EZKONDUTAKOAK

- Maria Elena Azkue Camino eta Zuriñe Ugalde Zubia, Orion, urtarilaren 19an.

Eskela edo urteurreneko gogoangarria KARKARAN jarri nahi baduzu, deitu gure telefonora:
943 83 15 27



Ubegun industrialdea, 7
20809 Aia-Orio
Tf/fax: 943 83 51 86
carroceriasazkue@hotmail.com



Dublindarrak obra berria estreinatu du Irastorzak. HONDARRIBIAKO UDALA



Zergatik ez? taldetik bi traineru irten ziren Oriaren jaitsieran.



Beganismoari buruz egin zuen infografia Peronak. S. PERONA

Otsaila handia

Otsaila motza izaten da beti, are motzago, azken ostirala horren bizkor iristen denean. Aurtengoa, hiru asteko hilabetea izan da Karkariñoentzako, tope gabiltza!

Lasai, ez dugu hitz egingo eguraldiaz, ezta Handia filmaz ere. Ohi denez, hil honetan ezustean-edo jazo diren zenbait gertakariez lotzen saiatuko gara.

Lasai, ez dugu hitz egingo eguraldiaz, ezta Handia filmaz ere. Ohi denez, hil honetan ezustean-edo jazo diren zenbait gertakariez lotzen saiatuko gara.

Batetik, Iñake Irastorzaren lana aipatu nahi genuke, Dublindarrak obra berria estreinatu zuten Hondarribian, eta oraintxu Donostian izan dira lan horrekin Ados konpainiakoak. Obrak mende hasierako Irlandan kokatzen gaitu, artean Erresuma Batuen mendean zegoen Irlandan; eta besteak beste, emakumeek botoa eman zezaten egindako borroka azalarazten du sufragista baten larrutik. James Joyce-ren liburuko azken ipuinaren gainean idatzitako obra pertsonaia xeblez osatuta dago, tartean, etxeko izekorena, Iñakerena. Tope dabil Itsaspekoa!

Oharkabea pasa dena Saio Peronaren saria izan da. Diseinu lanetan dabil aspaldian –gure aldezkariko diseinua ere berea da– eta Columns Five agentzia estatubatuarrrak 2017ko infografia onenen arteko zerrendan sartu du Saioak beganismoari buruz egindakoa.

Baina guztiz oharkabea pasa den beste berria Aldapa soziedadearena izan da. Otsailaren 4n, urteko asanbladan, onartu zuten emakumezkoek bazkide izateko aukera izango zutela hemendik aurrera, dena esate aldera, administrazioak estatutu berriak onartzera behartuta. Gauzak horrela, zakillaneko soziedadeak bazkide gisa emakumezkoak onartzen ez zituen Orioko azken elkarte izateari laga dio. Bazen garaia!

Ikusia dago, oraindik, *zergatik ez?* galdetzen jarraitu behar dugula, nola arraun egiteko, antzezteko, ordenagailu aurrean aritzeko hala txuletak erretzeko. Askorentzat, herriko zubi azpitik arraunean pasa izanagatik bakarrik izan da handia 2018ko otsaila. Tope dabilta, bejondeiela!

Egokia al da hondakinak gaika biltzeko sistema berria?



“Merkatari bezala, ez zait praktikoa iruditzen”

Hondakin sistema berria ezarri egin digute, merkatariei aurretik iritzirik eskatu gabe. Ni prest nago gehiago birziklatzeko, baina horretarako, dendarioi erraztasunak eman behar zaizkigu.

Gure kasuan, arazoa dugu egurrezko kaxekin. Garbigunera eramateko esaten digute, baina hori ez da konponbidea; garbiguneak dendako ordutegi bera du, eta ezin dugu egunean bi buelta egiten jardun. Jendeak borondatea izanez gero, sistema berriak funtziona dezake, baina ez dakit gizarteak horretarako prestutasunik duen.

Jose Manuel Gozategi



“Denon ardura da birziklapen tasa igotzea”

Herriarroi buruan sartu behar zaigu, modu batera edo bestera, birziklatu egin behar dela. Txartelarekin tasa igotzen bada, ba primeran. Hala ere, sistema berria findu egin behar da oraindik, kasu batzuetan ez baita oso eroso.

Hondakinak biltzeko sistema berriaren alde nago, botatzen ditugun hondakinen gaineko kontrola handiagoa izango delako. Zoritxarrez, halako neurriak hartu behar dira, oraindik gizartean gai honekiko utzikeria handia baitugu.

Joxe Mari Genova



“Arazoa dugu organikoaren bilketarekin”


Tabernan arazoa dugu hondakin organikoekin. Arratsaldeko lauretan dugu organikoa ateratzeko ordua, eta ez da momentu ona. Edukiontzia espaloian lagatzeak itxura zikina ematen du, ez da egokia. Bestalde, afari asko ematen ditugun egunetan, adibidez, organiko asko pilatzen zaigu sukaldean, eta ezin dugu hurrengo eguneko arratsaldera arte atera. Lehen bezala, ostalariei giltza ematea nahiko nuke, hondakinak beharrezkoa denean ateratzeko. Birziklatzearen aldekoa naiz, baina ostalariei, sistema berri honek ez digu laguntzen.

Jone Gozategi

Goazen Orioko eta Aiako errezeta liburua idaztera. Lagunarteko otorduak; paper muturrean gordetako osagaiak eta kopuruak; etxeko jan ohiturak; baratza, errioa eta itsasoa; jatetxeetako sukaldeak... Mahai bueltan gauza asko egin daitezke, interesgarrienak bi: jan eta berriketan egin. Ahal dela ez egin biak batera.

Ezezaguna eta itsusia bezain goxoa

Muxu Martin parrilan erreta



Osagaiak

Muxu Martin bat, kilokoa gutxienez.
Baratxuria.
Pipermin ale bat.
Olio.
Ozpina.
Gatza.

Edaria

Arbela txakolina.

Nola egin?

Pieza ondo garbitu, olio eta gatzaz ondo igurtzi eta parrilan jarriko dugu. Arrain zapala da, beraz, ez du denbora asko behar: alde bakoitzetik zazpi bat minutu, gutxi gorabehera. Ohiko olio-frijitua egingo diogu. Baratxuria zuritu, zatitu eta oliotan jarriko dugu. Baratxuriak kolore pixka bat hartu aurretik arrainari gainetik bota. Ozpina eta pipermina gehituko dizkiogu. Zuku guztia padelera irauli eta berotualdi bat emango diogu. Olio-frijitua loditu egingo da, prest dago arrainari gehitzeko.

JON AGIRRESAROBÉ

Kostakoak gara baina zenbateraino ezagutzen ditugu uretako piztiak? Adibide bitxia dakarkigu gaurkoan: *Muxu Martin* itsusia. Gure webean helbidean ikusgai daukazue herritarren artean egindako inkesta: bakarrak asmatu du, Miren Larrañagak, arrandegiko langilea bera.

Irudikatu ezazue estampa: *Bisigu Festa*, larunbat eguerdia. Herriko plaza bete-beteta: 1200 razio marmitako zerbitzatzen ari diren bitartean postu baten aurrean boligrafoa eta papera hartuta daude dozenaka lagun. Hamabost arrain ezberdin daude Carmen arraindegiko Olgak eta Igorrek prestatu duten arrandegian. Saria eramateko izen guztiak zuzen asmatu behar dira: *oilarra*, *kario-ka*, *txitxarroa* edo *salbera*... Divina Lanberriren ondoan tokatu ginen eta hark bota zizkigun izen denak ilaran.

Gutxi izan ziren asmatzaileak: mahaiaren bazter batean zegoen arrain zapalak ez zigun lana erraztu. Orduko hartan ezagutu genuen *Muxu Martin*, eta arroko arrainen denboraldi betean denez berriro ekarri dugu mahai bueltara. Kostera arrandegian topatu dugu eta ezin aukera galtzen utzi.

Zeus Faber da argazkiko piezaren izen zientifikoa. Ezezagutzatik eta izenetik da bitxia itsas hondoko arrainaren istorioa. Mundu osoan arrantzatzen da, Mediterraneoan, Atlantikoan eta Kantaurin bertan ere bai. Beste espezie askorekin gertatzen den bezala portuaren arabera izena aldatzen zaio pizti zapalari: euskaraz *Muxu Martin*, *Martíña* edo *Oiarra*; gaztelaniaz *Cañada*, *Gallo Cristo* eta *San Martín* edo *San Pedro*, galegoz *Sanmartiño*. Enkarguz eskatzen ez bada nekez egoten da arrandegiko sabaia



Zapala izanik buelta eta buelta behar du parrilan, zazpi bat minutu asko jota. XABIER IRIBAR

“Historia gutxirekin esleitu zitzaion San Martin izena arrainari: azaro erdi aldera egoten da arrain hau bere onenean”.

“Gris kolorekoa, arrasto berdeak dauzka tarteka. la eskamarik gabekoa da, gorputz borobila eta zapala, buru handi eta hezurtsua ditu, eta begi handiak buruaren goiko aldean”.

begira. Betiko hiru gauza erosten ditugula esaten duenak arrazoi izango du, alegia.

Elizak santu izena jarri zion, bi aldetatik. Batetik, Biblian agertzen da arrain ezezaguna. San Pedro apostoluari Cesar enperadoreak jarritako zergak ordaintzeko eskatu zioten palazioan. Dirurik ez eta Jesusek esan zion zer egin: itsasora joan, amua bota eta lehen arrainaren ahoan aurkituko zuen zilarrezko txaponarekin ordainduko zuen zorra. Hala egin zuen: apostoluak bi behatzekin heldu zion arrainari eta geroztik alde bakoitzean arrasto beltz edo berdexka ditu San Pedro arrainak. Historia gutxiagorekin esleitu zitzaion San Martin izena: azaro erdi aldera egoten da arrain hau bere onenean. Muxuarena ez dugu deskubritu, baina Orion *Muxu Martin* izenez eza-gutzen da.

Erreboiloaren antzekoa dela esanda argitzen dira zenbait. Gris kolorekoa, arrasto berdeak dauzka tarteka. Ia eskamarik gabekoa da, gorputz borobila eta zapala ditu, eta buru handia eta hezurtsua. Begi handiak buruaren goiko aldean. Itsas ondotik joaten diren beste arrainek alde berean dituzte bi begiak, honek bietan ditu. Gandor tankerako hegats ugari ditu.

Polita ez da, ederra bai ordea. Klasikoa izan da *Akelarren* eta *Arzaken*, urte luzetan eskaini izan dute. Haragia fina, zuri-zuria, leuna baina zapora handikoa. Galizian *Sanmartiñoa*, Malagan eta Almerian *Gallo de San Pedro* izenez jatetxe askotan eskaintzen dute. Komertziala ez izatea ere ulertzekoa da: burua, hegatsak eta hezurrak kenduta arrainaren erdia joan zaigu. Saldak eta zopak egiteko erabili izan da, Galizian *kalderetak*. Parrilan osorik jarriko dugu eta jatetxe onenetan lomoak aterata zerbitzatzen dute *Muxu Martin*.

ELEKTRIZITATEA
Andex Espoite
 943 831 774
 600 856 728
 anderexpoelektrizitatea@gmail.com

SU KIA
 TABERNA - JATEKOA
 On agin eta gero... hartu KOPA eta TOPAE
 - OILASKO ERREAK ERAMATEKO
 - EGUNEKO MENUA
 - EGUNKARIAK
 - OGIA
 Tf. 943 842 428
 ARANZATEGI 10, 1. BARRIOA

emakume arropa - neurri bereziak
 kinkiladenda - barruko arropa
argine
 15eko deskontua familia egarlen saztelarekin
 Eusko Gudari, 9 - Orrio
 943 134 889 [f](#) argine/jantziak

ARISTERRAZU
 jatetxea
 Andatza auzoa AIA
 Tel. 943 83 45 21

Carmen eta Txomin
 ARRADEGIAK

 943 83 05 37 / 943 83 27 47

2GURPIL

 Baxoalde 2 - 3 - 20810 Orrio (Gipuzkoa)
 Tf. 943 835 980 [Wi](#) www.2gurpil.com [E](#) bigurpil@hotmail.com

arkaitz taberna
 ... orio ...
 - EGUNEKO MENUA
 - OGITARTEKOAK
 - PINTXOAK
 - PLATER KONBINATUAK
 - KARTA
 Terraza ederrarekin
 giro ezin hobea
 abeslari kalea 6 - 943 831 657

Gabon
 TABERNA
 ✓ Pintxoak
 ✓ Plater konbinatuak
 ✓ Ogitartekoak
 943 83 06 09

Alustiza Autobusak
 Alustiza Bidaia S.L.
 Autobus litera eta
 16, 19, 25 eta 56 plazakoak.
 Bidaia eta ezkontzetara edo sagardotegira joateko.
 Tel. 943 13 28 93 / 83 08 80. Mugikorra: 656 78 30 01 - 656 78 29 99

TXUKUN
LORAZANTZA, S.L.
 Tel. 660 332 756 - 679 428 851
 Lorezaintza
 Mendiko lanak
 Indusketak
 Itxiturak
 ...
 txukunlorazantza@hotmail.com

ANORGA TXIKI S.L
KRISTALDEGIA
 - komertzial instalazioak - beira bikoitza
 - segurtasun beirak - dutxa-itxiturak eta irristailuak
 - ispilluak - barandak - kristal mota guztiak...
 Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA 943 37 17 33- 610 45 93 45

libe
 dietetika
 elikadura aholkularitza
 eusko gudariak 35 - ORIO
 [sarrera Arantzale kalean]
 943 53 64 94 - 697 23 86 56
 libegarmendia@gmail.com

Seguros Bilbao
 Telf: 943 111 600
 688 714 869
 Endaia Eparantra, 1
 20810 Orrio (Gipuzkoa)
 e-posta: sbarranco@segurosbilbao.com
 Santi Barranco
 Orioko ordezkaria

EKILORE
GARBIKETAK

 626417841
 ekilore@outlook.es

ttipi
ttapa

 943259695
 ttipittapa.oihane@gmail.com
 Eusko Gudari, 15 - 20810 Orrio

Hezitzailearen ongizatea



Eider Salegi

**Eskola bateko ekipoa
konpromisoa sentitzen
duten irakasleek eta
lankideekin harreman
onak dituztenek estres
emozional gutxiago sen-
titzen dute**

Haur Hezkuntzako hezitzaile gisa, gure helburuetako bat da haurraren ongizatea bermatzeko baldintzak eskaintzea, baina jarri al gara inoiz hezitzailearen ongizatearen inguruan hausnartzen? Nola nago ni? Hartzen al dugu tartea honi erreparatzeko? Gure buruari begiratzeko? Gure buruaren zaintza egiteko bideak jartzen al ditugu? Argi dago hezitzailearen ongizateari ere erreparatu behar diogula, hezitzailea ongizate egoeran ez badago, zaila izango baita haurraren ongizatea bermatea.

Gure lanbidean alderdi pertsonala eta profesionala oso lotuta daude, el-karreraginean daude eta pertsonalak profesionalari asko eragiten dio. Gure historia pertsonalarekin gaude presente gelan, eta horrek eragina dauka eraikitzen ditugun harremanetan. Beraz, gudan fokua jartzea eta egiten dugun horretan arreta jartzea oso garrantzitsua da, alegia, gure ahulguneak zeintzuk diren identifikatzea eta aurrera egiteko erronkak planteatzea.

Hezitzailea ongizate egoeran kokatzeko ezinbesteko bi faktore aipatu nahi genituzke: alde batetik, autoezagutzaren garrantzia; eta, bestetik, harreman sareak sendotuta egotearen garrantzia. Autoezagutzak gure buruarengan segurtasuna eta indarra ematen digu, gure mugekin kontzientzia hartzen laguntzen digulako. Baina, era berean, indartuta sentitzen gara elkarlana eta kooperazioa sentitzen ditugunean eta harremanak modu egoki batean kudeatzeko gai garenean.

Eskola bateko ekipoa konpromisoa sentitzen duten irakasleak eta lankideekin harreman onak dituztenak estres emozional gutxiago sentitzen dute eta lorpen pertsonalaz gehiago disfrutatzen dute.

Autoezagutzarako konpromisoa hartzea ezinbestekoa du, beraz, hezitzaileak bere lanean, eta horretaz gain, harremanen kudeatzaile bihurtu behar dugu, horretan aditu izan behar dugu, gure lanbidea harremanetan oinarritzen delako.

Autoezagutzak aukera irekitzen digu hobetzeko eta ongizaterako bidea egiteko. Bide hori gako bihurtzen da ongizatea berreskuratzeko, eta horrela, umeei presentzia hobea eskaintzeko. Gure esku eta ardurapean daude pausu txikiak, eta leio txiki honetatik gonbidatu nahi zaituztegu gutxienez horretan pentsatzera.



Miriam Garcia

Miriam
KARKARAKOA

Aurpegiaren irribarrea marraztu zigun mezu bat jaso genuen aurreko astean. Arabako lagun batek, senideak Orion dituela-eta, sarritan irakurtzen omen du Karkara, eta eskerrak eman zizkigun egiten dugun lanagatik. Eguneroko geldiezinako jardunetik burua altxatu eta ingurura gustura begiratzeko aukera eman zidan mezu hark.

Kazetaritza ez da lan erraza, eta tokikoa, esango nuke, are gutxiago. Egunero zure herrikideekin harremanetan zaude, etengabe: lanean, *borrokan*, eskean... Lanak amaitu eta kalera irteten zarenean *kazetari* etiketa gainetik kentzea kosta egiten da. Nik dagoeneko oso barneratua dut *Miriam KARKARAKOA* naizela.

Horrek, ordea, badu bere alde ona, burua altxatu eta kanpotik begiratu-ta, konturatzen zara herritar horiek beste herritarrei zerbait adierazi nahi diotenean zugana jotzen dutela. Zerbait oker egin duzunean zuzendu egiten dizutela, zure lana irakurri eta balioa hartzen duten seinale. Gauza txiki horiek guztiak elkartuta konturatzen zara baduzula erreferentzialtasun bat.

Kritika errazaren gizarte honetan, hitz onak, balioan jartzen gaituztenak, jasotzea kosta egiten zaigun sentsazioa dut, ohitura faltagatik edo. Horregatik, horrelako mezuak jasotzen ditugunean, momentu bat geratu, arnasa hartu eta egindako lanagatik harro egotea tokatzen zaigu.

KAIOA

Arropa
Oinetakoak
Osagarriak

Ametzola kalea, 6
T 943 344 985
ORIO (Gipuzkoa)

Zgordia kalea, 18
S. Francisco kalerako oinarri
T 943 027 834
ZARAUTZ (Gipuzkoa)

Erriberri kalea, 10
T 943 543 023
ZUMAIA (Gipuzkoa)

www.kaioa.es

Desatascos
LASTER

24

688 886 536

Sagua erreta 21-A - 20080 Sarriena - Alkizaren aurrealdea - Sagua 20010 Ormaiztegui - Tel: 943 751 431
desatascos@desatascoslaster.com - www.desatascoslaster.com

BODEGAS
Gailur

91000 BANCOS & CERRA
Tel/Fax 943 40 01 56
www.bodegasgailur.com

Arakbar Torrea

ZUDUGARAI

Galeriako Tzabolina

Tel. 943 83 03 86
Fax 943 83 59 52
tzabolinazudugarai@euskaltel.net
www.bizkaizudugarai.com

urbide
iturginak s.l.

Iturgintza - Berogintza

Bizkaia Kalea, 4
20800|Zarautz
943 890 069
urbideiturginak@gmail.com
www.urbide.es

Sinergia | fisioterapia & berogintza

943 13 05 77
685 71 85 95

Lesioak: bihurturak, tendinitisak, zointzirotuak, kontrakturak, hanka handituak, artrosioa, kirurgia osteko birgaitzea, bizkar hezurreko arazoak, arnas gaitortasunak, haur eta heduetan, lesio neurologikokoak, haundunaldirako tratamendu bereziak, erditze ondorengo errehabilitazioa.

Tratamenduak: terapia manuala, osteopatia, masajeak, drenatze linfatikoa, arnas fisioterapia, kinesiotaping-a, pilates, abdominaletako gimnasia hipopresioa (GAH), REDCORD.

Itziar Oñate, 1, Beñat - Ormaiztegui
sinergiafisioterapia.com

GARMENDIA

WINE & AGENTZIA - AHOLKULARITZA - ASIGURUA

Ibañeta Ondo, 1
Tel.: 943 834 466 - Fax: 943 132 941
informacion@garmendigestion.com

ETXKO BEREZITASUNAK
ARRAIN ZOPA
PARRILA

BODEGON SARASUA
ERRETEGIA

Eusko Gudari Kalea, 29-20810 ORIO - Tel.: 943 83 00 05

ITZALA

kartelak jokatzen
apropia

tel. 943 83 12 59

Lizaso
dekorazioa

Tf: 943 83 07 84
Faxa: 943 24 87 15

Eusko Gudari, 48

HUR ETXAK HELPUENTZAKO JANTZIAK

ROSA

GARBINE ARRILAGA
ARRILAGA KALEA, 2 - TEL. 943 13 19 83
WWW.FACEBOOK.COM/ROSAARRILAGA

10% DESKONTUA FAMILIA UGARIENTZAT

ITZIAR
kirolak

Tel. 943 83 31 03

Zarautz
Hileta Zerbitzuak

Harrespil
Hilerri Zerbitzuak

Araba kalea, 35 · ZARAUTZ · Gipuzkoa · Tel.: 943-89 49 37 · Faxa: 943-89 49 41 · e-posta: zarautz@harrespil.net



Maiz: 50 urte Lasarteko krosa irabazi zuenetik

1968an irabazi zuen Joxe Migel Maizek Donostiako Nazioarteko Krosa, Lasarteko Krosa bezala ezagun den proba. Krosa gipuzkoar batek irabazi zuen azken aldia izan zen hura eta horregatik omendu dute aurten, 50. urteurrenean, probaren antolatzaileek.

Goiko argazkia Aiako udaletxearen aurrean orain 50 urte garaipenaren ondoren ateratakoa da. Zutik, ezkerretik hasita Joan Azpiroz, Don Ramon Aginaga apaiza, Blas Odriozola alkatea, Ignazio Uria, Joxe Migel Maiz, koparekin, Caminos aguazila, Joxe Mari Orbegozo, Don Antonio medikua eta Emilio Olazabal. Beheko ilaran daudenez ez dugu informazio handirik, tartean Urkia delako bat, *Txurreroa*, Joxe Lasa eta Goikoetxea direla besterik ez.

Txoko honetan erakusteko moduko argazki zaharren bat baldin badaukazu, ekarri Karkara eta gustu handiz argitaratuko dugu, zuk eka-rritakoa dela jarrita.

ANE MAITE MANTEROLA

“Atletismoak umiltasunaren balioa erakutsi dit”

Kamel Ziani

Korrikalaria

Kamel Zianik duela sei urte utzi zion eliteko atletismoari, baina oraindik, sasoi betean jarraitzen du. Atletismoaz gain, beste hainbat kontu ere izan ditugu hizpide, 1972an Marokoko Alhucemas hirian jaiotako oriotarrarekin.

IÑIGO GAITON

Familian bazenuen korrikalariren bat aurretik?

Ez. Aita boxeoa jardun zen Hernanin. Han egiten zuen lan. Hasi eta gutxira, sudurra hautsi zioten eta berehala laga zuen.

Nolatan hasi zinen atletismoan?

Hemeretzi urte ingururekin, judoan aritzen nintzen Indar Gym zaharrean. Pisua jaisteko, korrika egitera eramaten gintuzten tarteka. Zerbait ezberdina egite aldera, Getariako lasterketa herrikoi batean parte hartzera gonbidatu gintuzten. Txapela ekarri nuen etxera.

Ederra hasiera...

Beno, lasterketa ez zen maila handikoa. Hala ere, Lasarte-ko atletismo taldera eraman ninduten frogak egitera, hipodromora.

Hondarretara.

Hori da, kristoren pasara hartu nuen! Marka oso onak

egin nituela esan zidaten. Harrituta zeuden bertakoak. Hor eman nuen atletismorako jauzia.

Gazte debutatu zenuen maratoian.

24 urterekin, Londresen. Lortu nuen marka ona zen adin horretarako: bi ordu eta hamalau minutu. Ez ziren garai errazak haiek, asko entrenatzeaz gain bestelako lanak ere egiten nituelako. Atletismora dedikatzeko apustua egiten ari nintzen, lanean erdizka, ikaslea erdi-purdi izan ostean...

Urte berean, Amsterdamen bigarren postua lortu zenuen, gerora hobetu ez duzun errekorra ezarriz: 2:10:18. Zer gogoratzen duzu maratoi hartaz ia hogeit urte geroago?

Irteeran, korrikalari batzuk munduko errekorra hausteko helburua zuten, maila handiko lasterketa zen. Nahikoa lasai irten nintzen. Lasterketaren erdi-lanak pasata, errekorren bila irten zirenek pott egin zuten, eta ni



oso indartsu bilatzen nintzen artean. Aurpegi ezagunak aurreratzeari ekin nion, eta bigarren postuan zeharkatu nuen helmuga, denbora bikaina eginda.

Irabazle ere sentitu zinen, unetxo batez...

Helmuga baino metro batzuk lehenago, karrera irabazi nuela ulertu nuen. Besoak zabaldu nituen ospatzeko, baina zinta falta zela ohartu nintzen! Keniar bat ni baino minutu bat lehenago helmugaratu zen... kar kar kar.

Lasterketa horri esker lortu zenuen lehen kontratu profesionala.

Nire managerrak Adidas etxekoei nire potentzialaren berri eman zien lasterketa baino lehenago. Eurek ordaindu zidaten trena Amsterdameraino, baina bidaia txartelaz gain, ez nuen beste inolako diru-saririk. Kexatu egin nintzaion managerrari. Errieta galanta egin zidan: *hik zer uste duk, oraindik ez haiz inor! Prestigioa irabaz-*

teko daukak!

Eta?

Egundoko jenio bizian itzuli nintzen logelara. Hurrengo egunean, irteeran, amorrua barruraino sartua nuen. Motibazioa baino zerbait handiagoa zen hura. On egin zidan managerraren sermoiak! Kar kar kar Emaitzari esker, Adidasek fitxatu ninduen. Kristoren karga kendu nuen gainetik, urte batzuetan atletismoaz lasai bizitzeko bermea eman baitzidan kontratuak.

Alor ekonomikoari dagokionean, atletismoak ondo bizitzeko aukera eman al dizu?

Bai, ondo bizi izan naiz. Eroso. Urte onak harrapatu nituen.

Adituen iritziz, maratoian 2:10-etik jaisteko potentziala izan duzu, baina hortxe geratu zara, mugan. Obsesiorik sortu al dizu horrek?



Arantza hori hor geratu da, eta Olinpiadarik ez jokatzearena ere bai. Baina ez bata ez besteak, ez didate sekula lorik endu, ez dut obsesiorik izan. Atleta batzuk badira anbizio itsua dutenak. Nik betidanik errespetatu dut nire gorputza. Ez nuen marka hori edozein preziotan jaitsi nahi.

(...)

Elitean zaudenean, arrakasta, ospea eta dirua eskura ikusten dituzu, eta testuinguru jakin batean, erraza da itsutzea. Esan bezala, nik ez nuen nire gorputza mugetatik harago eraman nahi, eta horri esker, gaur egun sasoi-ko egoten jarraitzen dut. Orain, distantziatik begiratuta, harro nago hartutako erabakiez. Ez dut kontzientzian kosk egiten didan harrik.

Urte askotan, Orioko *palazio* zaharrean entrenatzen ikusten zintugun, eta hondartzan ere asko. Inguru hori eskura izateak eragin al du zure teknikan?

Bai, dudarik gabe. Orain ez ditugu zirkuito horiek herrian! Hondartzako lehengo ingurunea luxua zen niretzat. Hondarretan asko ikasten da, teknika hobetzen laguntzen dizu. Erresistentzia eta lasterketetarako teknika ere bai.

Chema Martínez korrikalariaren hitzak: *Korrika egiteak min egiten du. Beti. Hainbesterako al da?*

Asfalto gainean, giharrek ikaragarri sufritzen dute. Horregatik entrenatu izan dut asko belarretan edo hondar-

“Gauza asko eman dizkit atletismoak: bizitzeko bide bat, ofizioa, gozamen une ugari...”



tzan. Pentsa, elitean negoenean, lan karga handieneko boladetan asteetan 220 kilometro egiten genituen. Gorputzak egurra jasotzen du.

Bizi al duzu minarekin edo sufrimenduarekin loturiko muturreko egoerarik?

Kanadako lasterketa batean, sasoiko nengoen. Bero ikaragarria tokatu zitzaigun karrera egunean. 30.kilometroan giharrak astun eta ahul sumatzen nituen, muskularki jota nindoan. Sekulako inpotentziarekin. Txikituta iritsi nintzen helmugara. Oxigenoa jarri behar izan zidaten, eta jela ere bai bularraldean, gorputzaren temperatura jaisteko.

Eta estasi edo bete-une ikaragarriak?

Goraldiak bai; tarteka, kristorenak. Baina maratoian, halako goraldiekin kontuz ibili behar da, normalean, beherakada izan ohi baita horien ostean.

Zein izan da zure ibilbideko arrakastarik handiena?

Gozatzea. Bizimodua ateratzeaz gain, ikaragarri gozatu dut korrika egiten.

Eta erretiroa hartzea erraza izan al zen?

Bai, nekatuta amaitu nuen; batik bat, psikologikoki. Ez nuen egindako lanaren fruiturik jasotzen, ekonomikoki batez ere. Lesio pare batek ere dezente geratu zidaten martxa.

Atzera begiratuta, zer eman dio atletismoak Kameli?

Gauza asko. Bizitzeko bide bat, egonkortasun ekonomi-

koa, ofizioa, gozamina.

Eta erakutsi?

Hankan lurrean izaten. Umiltasunaren balioa. Distantzia luzeko korrikalarion kasuan, ordu asko ematen dituzu bakarrik entrenatzen, gorputzari egurra ematen; gehienok, fondistok, argalak eta eskasak gara beste atleta batzuekin konparatuz. Miseria handiak pasatakoen itxura izan ohi dugu... kar kar kar. Maratoian elitean ibiltzeko, ez dago txorakeriarik. Umiltasuna eta lana. Karrera luzeek nire tokian jarri izan naute. Bizitzarako lezio handiak atera ditut atletismotik.

Gaur egun, maila oso onean jarraitzen duzu korrika.

Presiorik gabe, lasterketa politak egiten ari naiz, bai. Duela gutxi 5.000 metroko froga bat irabazi nuen, marka onarekin. Euskadiko kross txapelketa irabazteko helburua ere banuen, baina karrera eskasa atera zitzaidan.

Mendi lasterketetan lehiatzeak tira al dizu inoiz?

Parte hartu dut pare batean! Giharrak txikituta utzi zizkidaten.

Teknika ezberdina izango da guztiz.

Bai, ikaragarria da jendea maldan behera nola jaisten den ikustea.

ORIOKO ATLETISMO TALDEA

Orion atletismo eskola sortu berri duzu Aitor Rubioren batera.



Elkarrekin korrika ari ginen batean okurritu zitzaigun. Atletismoa modu formalagoan lantzeko aukera eskaini nahi diegu 8 urtetik aurrerako haurrei. 30 korrikalari ditugu taldean.

Umeen garapen fisikoan, lagungarria izango da korrika ondo egiten ikastea.

Oso sana da, bai. Txikitatik teknika pixka bat ikasiz gero, hori hor geratzen da, betirako. Gainera, korrika ondo egiteak beste kiroletarako ere balio du, oinarri ona da edozertarako.

Korrikaz gain, beste modalitateak ere lantzen al dituzue?

Denetarik egiten saiatzen gara, tartekatuz: altuera eta luzeerako saltoak, distantzia ezberdinetan korrika, hesiekin... Honela, koordinazioa, teknika, indarra eta aspektu ezberdinak lantzen ditugu.

LANA

Iturriotzen egiten duzu lan, gazteentzako babes etxean.

2007an ireki zuten zentroa, eta bertan lan egiteko aukera eskaini zidaten. Korrikalari ibilbide profesionala nola bukatu pentsatzen nebilela suertatu zitzaidan aukera, eta bertan jarraitzen dut, oso gustura. Gizartera egoki-

tzeko zailtasunak dituzten gazteekin egiten dugu lan.

Zuk zer egiten duzu zehazki?

Gazteekin eguneroko erosketak eta sukaldeko ohiturak lantzea da nire zeregina, besteak beste. Bizitzarako disziplina egokia irakasten saiatzen naiz.

Lanean hasi zinenean, garai gogorra zen.

Marokoar askok emigratzen zuten hona, egoera latzetan, gizartera egokitzeko oztopo askorekin. Kasu oso gogorrrak ezagutzea tokatu zitzaidan.

Ondo kudeatzen al dituzu zure emozioak egoera gordine-tan?

Bai, baina badira gurean lanean hasi eta lanpostua berehala lagatako langileak. Nik zortea dut, asko betetzen nau nire lanak; gazteekin momentu on asko ere bizitzen ditugu. Asko jasotzen dut bueltan.

“Sinergia: 15 urte Orion”

www.sinergiafisioterapia.com

Sinergia fisioterapia klinikak 15 urte bete ditu. Urteurrena ospatzeko, besteak beste, irudi korporatiboa eraberritu dute. Natalia Wierzesen arduradunak urteotako ibilbidea azaldu digu.

Sinergia | fisioterapia & investigación



Urte guzti hauetan, Sinergia dezente hazi da, ezta?

Bai, klinikako lan taldea handitzen joan da pixkanaka. Urtez urte, langile bakoitzaren prestakuntza profesionala ere garatzen joan da, Sinergiaren zerbitzuen eskaintza zabaltzearekin batera.

Eskaintzen dituzuen zerbitzu guztiek, zientzian dute oinarria.

Hori da. Gure terapia guztiak, eskuzkoak eta teknologikoak, ebidentzia zientifikoetan oinarrituta daude.

Horri esker, pazienteak ikuspegi klinikotik tratatzen dituzue.

Paziente baten lesiotik harago, balorazio orokorragoa egiten dugu, faktore ezberdinak kontuan hartuz: pertsonaren alderdi biologiko eta fisikoa, psikologikoa, soziala...

Hori posible izateko, ondo ezagutu beharko da paziente bakoitza.

Gure terapeutek perfil ezberdinak dituzte, eta beharrezkoa denean, talde lanean tratatzen ditugu pazienteak, terapia kasu bakoitzera ahalik eta gehien egokitzeko.

Terapeutek urte dezente daramatzate zuekin.

Bai, langile gehienek aspalditik egiten dute lan gurekin. Paziente askok ere urteak daramatzate Sinergian. Konfiantza sortzen du horrek batzuen eta besteen artean.

Urte guzti hauetan, goi mailako kirolariek ere lan asko egin duzue.

Orioko Arraun Elkartearekin eta Zarauzko Rugby Taldearekin, adibidez, pila bat. Beste elkarte eta norbanako kirolariek ere bai.

Garrantzi berezia du zuentzat Orio AE-rekin egiten duzuen lanak.

15 urte daramatzagu beraiekin lanean. Estropalariak tratatzeko moduak ere eboluzioa izan du; orain, lesioen prebentzioan arreta handiagoa jartzen da. Lesioak tratatzeko ere erraminta terapeutiko gehiago ditugu.

Asko ikasten al duzue eliteko kirolerik?

Arrauna, adibidez, informazio iturri bikaina da. Estropalarien prestakuntza teknikoa eta fisikoa zientifikoki asko garatu dira azken urtetan.

Arraunlariek egindako lanak, beste pazienteak tratatzeko teknikak hobetzeko balio digu; alderantziz ere gertatzen da.

Teknologiari dagokionean, oso ondo hornituta daude Sinergiako instalazioak.

Nik berezko interesa dut tratamendu berri eta patologietan, eta beti dut begi bat azken aurrerapen teknologikoetan. Esan bezala, puntako teknologia erabiltzen dugu eguneroko lanean: Indiba, Redcord, Rusi metodoa...

Gure webgunean baliabide teknologiko hauei buruzko informazio zehatzagoa topa daiteke.

Ze asmo dituzue etorkizunari begira?

Orain artean bezala jarraituko dugu, umiltasunez lan eginez eta etengabe ikasten. Amaitu aurretik, eskerrak eman nahi dizkiet urteotan gudan konfiantza jarri duten pazienteei.

Sinergia fisioterapia & investigación

Ibai Ondo 1, behe -oina · 943 130 577 · 685 718 595 · info@sinergiafisioterapia.com



Zortzi traineru oriotar Oriaren XXIV. jaitsieran

Berezia izan ohi da urtero-urtero Oriaren Jaitsiera, tostako arraunaren urteko lehen zita. Bi bandera ematen dira egun horretan, baina, benetan, protagonista, Oria ibaian eta Arraunetxen sortzen den traineru trafikoa izaten da. Aurten 93 ontzi ibili dira ibaiko meandroetan gora eta behera, eta bereziki gogoangarria izan da oriotarrentzat, herriko zortzi traineru irten baitziren uretara: nesken bi traineru, mutilen lau eta Zergatik ez? taldeko beste bi. Lehen estropada zuten azken horiek, eta hilabeteetako lana ondo egina dagoela erakutsi zuten uretan.





bertako
gogaiusk+ | ascensores
Irogailuen mantentze-lanak

LARRIALDI TELEFONOA DOAN

www.bertako.eus

info@bertako.eus

943 90 34 50

24 orduko asistentzia abisu guztientzat 

Iraupen-konpromisorik gabeko kontratuak

Orotariko zerbitzua **100 €-tik aurrera**

Euskarazko zerbitzua

edunitegia
ANTILLA
juletegia

Abslari Kalea, 2 - Tel. 943 83 23 00

Portu ERRETEGIA

Santo Erreka Abuzo, 24
943 89 44 34
20809 AIA-ORIO

*bestek bionko atxan
nabito endak egiak nora*

ROSANA
-ARGAZKI ESTUDIOA-
fotosanaraarruti@gmail.com
tel: 943 83 58 43

2018
Jaunartzeak

XPRESS JARDUERAK

Xpress jarduerak Karelana.
Abonatu kuotarekin dohainik.
INFORMA ZAITEZ HARRERAN.

KARELA kiroldegia 943 89 44 28

ZUR EDER
muebles tapiceria altzariak

zureden@zureder.com
943 13 49 21
Poligono Ubegun N°1, Puerta 8
20810, Aia-Orio

AUKERA!
50%
- ERAINOKO
DESKONTUA
KOLTZOIETAN

IGLESIAS
SARRAILAGILEAK

Javier Iglesias Fernández
637 723 308
iglesiasjavier@iglesias.es
20810 ORIO

24 ORDEN
SERBITZUA

- ATEAK IRKITEEN DITUGU
- SARRAILA-ZELANDIA ALDAKETA
- ATEAK IXTEKO MALDUNEN ALDAKETA
- KOMUNITATERENTZAKO ZERBITZUA

BADATOR GALERNA!
Laister zabalduko
ditugu gure atea!

Galerna
JATETXEA

943 89 04 10

niko
taberna

Karta · Pintxo tradizionalak
Okindegia
Palota Kalea, 5 · 20810 Orio · Egin erreserba 943 53 61 27

PIZZERIA
KALETA

ARRANTZALE KALEA, 10
TELEFONOA: 943 24 89 46

KAFETEGI-OKINDEGI-GOZOTEGIA
GELATTO

943 578 176
Hemiko enparantza

Izozki naturalak Opilak

PATXI OLIDEN
Hemengo haragia.
Etxeko produktuak: tripa, odolki,
txakorra, txorizo, krokettek...

PATXI OLIDEN
Eusko Gudari, 25 Tel. 943 83 00 10

MENDIZABAL
AROTEGIA
*Nerriko arrainak
eta egerlarrak*

943 831 175
645 708 491
mendizabal.net

Aitzari bidea
Beti-Aia etxea
20810 Aia-Orio

ZINKU

Igeltseritza orokorra
Itxeko azerioia mola gurtzak
tabakak, bainu gelak, igeltsera...

Andee Zinkunegui
667 740 279



Mundua gelditu mundua mugitzeko

Martxoaren 8rako emakumeen greba deitu du Euskal Herriko mugimendu feministak, nazioarteko deialdiarekin bat eginez.

Emakumeok* planto lelopean lan, ikasketa, zaintza eta kontsumo esparruetan greba egitera deitu dute.

TESTUA: M. GARCIA ETXEBERRIA

ARGAZKIAK: KARKARA

2018ko martxoaren 8a berezia izango da Euskal Herrian. Nazioarteko mugimendu feministak grebara deitu ditu mundu osoko emakumeak* –emakume izendapena erabili du mugimendu feministak, martxoaren 8ko greba feministan artikulazio politikorako baliagarria delakoan, nahiz eta genero sistema bitarraz gaindi askotariko gorputz, ibilbide, bizipen ahalmen eta identitate diren– eta euskal mugimenduak eta sindikatuek bat egin dute.

Orion ere, Nieves Arrutik –66 urte–, Angelica Acostak –45 urte–, Ainara Peñak –39 urte– eta Esther Arrutik –28 urte– ere bat egiten dute greba deitzeko ideiekin. *Emakumeen mugimendua oso beharrezkoa iruditzen zait, jende asko lo baitago oraindik*, dio Nievesek.

Etiket hasi eta lan mundura

Iaz, 70 herrialde baino gehiagotan deitu ziren emakumeak grebara, emakumeen kontrako indarkeria eta egiturazko desberdintasun sistematikoa salatzeke.

Europar, emakumeek astero 26 orduz ordaindu gabe ko lanak egiten dituzte eta gizonetzkoek 9. Inork aitortzen ez duen lana da hori, ikusezina. Angelicak lehen haurra izan zuenean soldatapeko lana utzi eta etxeaz arduratzea erabaki zuen: *ez dago lan astunagorik, etxean lan egiten duzunean, 24 orduko lanegunak izateaz gain, ez duzu oporrik, ordainsaririk, ezta bazarik ere*.


Bestalde, sistemak sexuaren arabera ko lan banaketa bultzatzen du eta emakumeak dira prekariedade handiagoa jasaten dutenak. *Lan munduan goi karguak betetzen dituztenak nortzuk diren ikusi besterik ez dago*, dio Estherrek, *gehienak gizonetzkoak dira*. ELAn egiten du berak lan eta sindikatuen mundua, tradizioz, gizonetzkoena izan dela kontatu digu. *Grebak hasieran industrian izaten ziren eta gizonetzkoak ziren protagonista*.

Gainera, sistemak ez ditu emakumeen enpleguak modu berean baloratzen, urtean batez beste gizonak baino 7.489 euro gutxiago kobratzen dituzte. *Soldata desberdintasunik ez dagoela esaten dute batzuk, lan berean dauden gizon eta emakumeek, normalean, berdin kobratzen dutelako* – jarraitu du Estherrek–. *Galdera, ordea, beste bat da*. Nork egiten ditu soldata handiagoko lanak eta nork lan prekarioak?

Ezkutatuta eta gutxietsita dauden ogibideak feminizatutakoak izan ohi dira gehienetan, bizitzaren iraunkortasunarekin eta zaintzarekin lotutako lanak, batik bat. *Prekarietateak emakume aurpegia dauka*, dio Estherrek; *kapitalismoari interesatu egiten zaio hori mantentzea, gainera*, erantzun du Ainarak.

Arrazakeria, jendartetik eta instituzioetatik

Etxeko langileen %87 atzerritarrak dira, %46 etxe barneko langileak dira eta herenak baino gehiagok ez dute lan



“Emakumeek, batez beste, gizonak baino 7.489 euro gutxiago kobratzen dituzte urtean.”

“Etxeko langileen %87 atzerritarrak dira eta herenak baino gehiagok ez dute lan kontraturik.”



kontraturik. Guztiak ados daude: bertako inork nahi ez dituen lanak egiten dituzte eta jendarteak hori sustengatzen du. *Emakume horiek ez badaude lan horiek egiteko, sistemak ez du alternatibarik eskaintzen* –Ainarak–, *ez dago zaintza duina eskaintzeko baldintzarik*.

Angelica ez da soldatapeko etxeko langilea, baina bere azalean bizi izan du arrazakeria: *askotan haurrak eta helduak zaintzen edo prostituitzen bakarrik dakigula pentsatzen da etorkinotaz, edo dirua duten mutilzaharrekin ezkontzera etorri garela*. Euren herria eta familia atzean utzi eta bizitza duin baten bila etortzen direnek traba handiak topatzen dituzte erakundeetan. Turismoan lizentziatua da Angelica; *lau urte pasa nituen titulua baliotzotuta nahian, paperekin bueltaka Mexikotik hona, eta azkenean etsi egin nuen*.

Guztiok planto egiten badugu, zer?

Nire ustez, greba honek emakumeok egiten dugun guztia ikustaraztea ekarriko du, dio Ainarak, egin dezagun planto munduak ikus dezan zenbat lan egiten dugun. Eta hau egun bakarra da, imajinatu urte oso bat balitz. Gure bizi-modua pikutara joango litzake.

Anjelicak dio berak behin etxean egin zuela bere greba propioa: *egun batean utzi egin nion egunero egiten dudana guztia egiteari, eta familia berehala konturatu zen etxea aurrera ateratzeko egin behar den guztiaz*.

Guztiak ados daude, planto eginez gero, mundua geratu egingo litzateke. Honela dio Estherrek: *emakume guztiok geratzek gizonekoek ere geratu behar izatea ekarriko luke, emakumeek egiteari utzi diogun hori guztia egiteko*.

Aldaketak etxetik hasi beharko lukeela uste dut, dio An-

gelicak, haur bati txikitatik erakusten badiozu gizonezkoa izateagatik ez dituela etxeko lanak egin behar, mentalitate horrekin biziko da betiko.

Arrazoi eman dio Nievesek: *askotan, haurrei iruditzen zaie zure betebeharra dela etxea eta beraiek zaintzea. Emakumeok egiten dugun lana handia dela konturatzea oso garrantzitsua da*.

Grebaren nondik norakoak

Martxoaren 8an grebarako deialdia zabaldu du Euskal Herriko mugimendu feministak, lan, ikasketa, zaintza eta kontsumo esparruetan.

Euskal Herriko gehiengo sindikalak lau orduko bi lanuzte deialdi egin ditu. 11:00etatik 15:00etara eta 18:00etatik 22:00etara izango dira lanuzteak eta, horrela, *eskoletan eta lantokietan lanuzteak egin eta 12:00etan eta 20:00etan egingo diren mobilizazio nagusietan parte hartzea* deitzen ditu emakumeak mugimendu feministak zabaldutako manifestuak.

Baina greba ez da lan edo ikasketa mailakoa bakarrik izango, zaintzan eta kontsumoan planto egitea ere proposatzen du manifestuak: *dei egingo diegu zaintza eta ugalketa lanak ez egitera –lan hori beste emakumeen esku utzi gabe– (...) eta, era berean, ez kontsumitzeko deia ere egingo dugu: agindu kontsumisten kontra altxa gaitezen, bereziki enpresa eta merkataritza gune handiak saihestuz, azkeneko horiek baitira lan esplotazioaren eta baliabideen ustiaketa basatiaren ikur esanguratsuenetakoa*.

Grebaren indarra ikusgarriagoa izan dadin, besoko moorea janztera, eta balkoi nahiz leihoetan mantalak eskegitza ere animatzen ditu emakumeak.



Gizonezkoen parte-hartzea

Etxekoek lagundu beharko ligukete, gizonezkoek kargu egin beharko lukete haurren eta ainton-amonen zaintzaz emakumeok greba hori egin ahal izateko, dio Nievesek. Izan ere, martxoaren 8an emakumeak dira protagonista. Nik semea ikastolara bidali eta alaba nirekin eramango dut manifestazioetara, dio Ainarak, eta lanean ere ez dut lanaren antolamenduan parte-hartuko, gizonezkoek egin dezatela beharrezko guztia.

Greba egunean gizonezkoek egin ditzaketek ekarpen proposamenak zabaldu dira azken asteetan sare sozialetan, beren aportazioarekin inguruan dituzten emakumeek greba egitea ahalbidetzeko:

-Aita bazara zure seme-alabez arduratu. Laguna bazara, zure lagunene umeak zaindu ditzakezu.

-Lankidea bazara emakume langileen lana egiteko eskaini zure burua. Nagusia bazara zure enpresan lan egiten duten emakumeei elkartasuna adierazi eta errepresioa, trabak eta arazoak saihestu.

-Ikaskidea bazara eskolara joan behar ez duten kideak eta haien lanuztea babestu. Irakaslea bazara martxoaren 8an zerrendarik ez pasatu, gogoratu zure ikasleen hutsegitea justifikatuta dagoela.

-Zure familian zaintza behar duenik badago, has zaitez egun horretatik aurrera ohituraz emakumeok betetzen dugun lan horretan pausoak ematen.

-Emakume batekin harremanik baduzu, martxoaren 8an kalean egoteko behar duen laguntza guztia emaitzatu.

-Komunikabideetan lan egiten baduzu, zure esku dagoen guztia egin emakumeek eman ditzaten egun horretako berriak.

-Mugimendu feministako gizon militantea bazara, zabaldu mezua zure lagun eta talde guztien artean. Martxoaren 8ko elkarretaratzeraz bazoaz jar zaitez nahi duzun tokian baina agindurik eman gabe eta manifestazioa zuzentzeko asmorik gabe.

M8A ORION

Orioko Xaltxerak Talde Feministak hainbat ekimen antolatu ditu martxoaren 8aren inguruan. Urola Kostako talde feministekin egitarau bateratua zabaldu dute eta, hau da Orion egingo dena:

-Martxoak 7, asteazkena

Hitzaldia: Emakumeak eta itsasoa. Arrantzaile komunitateak genero ikuspegitik, Patricia Martinezen eskutik. 18:30ean, Salatxo Aretoan. Hitzaldia gaztelaraz izango da.

-Martxoak 8, osteguna

19:00etan elkarretaratzea Herriko Plazan Ondoren, emakumeen afaria Balea elkartean.

Afarirako izen-ematea martxoaren 6a baino lehen, laster zabalduko dute deialdia.

Lan eta kontsumo grebarekin bat eginez, martxoaren 8ko emakumeen afarirako deialdia egin dute:

Gizonezkoa zara eta martxoaren 8ko grebarekin bat egin nahi duzu? Hona hemen Xaltxeren proposamena: gizonezko boluntario bila gabiltza emakumeen afaria prestatzeko; horrela guk, emakumeok, greba egin eta mobilizazioetan parte hartuko dugu. Lan egiteko prest zaude? Jarri gurekin harremaneta oriofeminista@gmail.com helbidean, gure facebookean edo taldeko kide batekin kontaktatuz.

Horrez gain, eguerdian hiriburuetan egongo diren mobilizazioetan parte-hartzera gonbidatzen dituzte herriko emakumeak. Donostian 12:00etan izango da Boulevardean.

Martxoaren 8an, guk planto!

Eider, enteratu al haiz Martxoaren 8ko grebarena? Ni batu egingo naun, bazeukanagu-eta makina bat arrazoi!

Lana sexuaren arabera zegonan banatuta, horregatik, gutxiago kobratzen dinagu etxetik kanpo egindako lanengatik, eta zaintza lan ordu gehiago sartzen dizkinagu, dohainik. Kasu batzuetan, hemen jaiotako emakumeok etxez kanpo lana aurkitu dinagu, baina etxeke logistika gure gain zagon oraindik: otorduak, erosketak, aitonaren pastillak, umearen igeriketa saioak,... Eta sarri, diskriminazioa klase baxuagoko bati pasa zionagu: 24 orduz, asteko zazpi egunetan, esklabo lan egiten din Carmen venezuelarrak amona zaintzen.

Egunero jasaten dizkinagu sexu erasoak: txiste matxistak entzun, gure ekarpenek gutxiago balio dutelako bileretan isildu, telebistan saltzeko objektu gaitun eta *politta egiteko* podiumetan sari, gogoz kontra ukitu, bortxatu edo erailtzen gaitizten.

Historiatik ezabatuta, nahi duguna maitatzea eragotzi eta gure gorputza gorrotatu dinagu. Gure bizitza pertsonala, soziala eta politikoa bateratzea ezinezkoa zaigun, besteen hobe beharrean pentsatu behar dugunez, egunak ez din-eta gehiagorako ematen.



Mirari Arriola

Kasu batzuetan, hemen jaiotako emakumeok etxetik kanpo lana aurkitu dinagu, baina etxeke logistika gure gain zagon oraindik.



Eider Goiburu

Arrazoi dun Mirari! Badizkinagu arrazoiak greba gauzatzeko. Ekonomia ereduaren eraldatu behar dinagu, pertsonen bizitzak eta lurra erdigunean jartzen duen ekonomia ereduaren behar dinagu. Sexuen araberako lan banaketa suntsitu, pertsona zein erakunde publiko orok zaintzaren kudeaketan duen ardura bere gain har dezan. Migrazio eta gizarte politikak aldatu behar dizkinagu, pentsamendu arrazista eta kolonialarekin hautsi aniztasunaren garrantzi eta baloreak nabarmenduz. Gure ikuspegia zabaldu behar dinagu, jatorri, klase, adin, etnia, aniztasun funtzional, sexu joera eta genero identitatea aniztasun ikuspegia txertatuz. Eta batez ere, indarkeria mota orotatik aske dagoen bizitza nahi dinagu, gure gorputz, gure sexualitate eta gure lurraldeari dagozkien erabakiak hartzeko dugun eskubidea aitortu diezagutela!

Dugun gizarte ahul, mingarri eta diskriminatzaile hau aldatu eta bizitzaren alde egingo duen jendartearen sortzeko beharra dinagu.

Horregatik nik ere planto egingo dinat! Nik ere amantala zintzilikatuko dinak balkoian eta mobilizazioetara batuko naun.

Mirari, imajinatze al dun? Orioko Emakume guztiok planto egingo bage-nu?

Horregatik nik ere planto egingo dinat! Nik ere amantala zintzilikatuko dinak balkoian eta mobilizazioetara batuko naun. Egun handia izango dun aurtengo Martxoak 8a.

Oinez ibiltzeko baino gehiago



Egoitz Dorronsoro

Hanka sartze ekologikoaz harago, hanka sartze sozialaz hitz egin nahi dut. Lehen gustu eta poltsiko orori eskaintza ematen zion natur gunen atsegin haren ispiluetako bat merenderoa zen.

Azken hogeitaz asko hazi da herria, ikaragarri eraiki da Orion. Turismo estrategia negargarria eta konstruktoreei lurra salduz negozioa egitea izan dira horretarako arrazoiak. Negozioaren kasuan, udalak dirua eskuratu du, horrela diru iturri handirik gabe, zorrik –nahiz herriak erraustegia edo AHT-a bezalako zorrak/hipotekak edukit– gabeko herri bat izatea lortu dute.

Gaurkoan, ikuspegi sozialik gabe, itsu-itsu, etxeak etxeen ondoan eraikitzearen ondoriok ekarri nahi ditut argitara. Guzti honen adibiderik garbiena hondartza ingurua izaki. Hanka sartze ekologikoaz harago, hanka sartze sozialaz hitz egin nahi dut. Lehen gustu eta poltsiko orori eskaintza ematen zion natur gunen atsegin haren ispiluetako bat merenderoa zen; freskeran etxean egindako patata tortilla zein etxe azpiko dendan erositako litroko zerbeza sartu eta itzalpeko mahai batean, lagunekin zein familiarekin aisia igarotzeko egokia. Egun, berriaz, asko jota, zeure bartuloak besapean, hondarretan edo zelaian ipinitako itzalkin (sonbrila) azpia da merenderoa.

Eliteko turismoa eskuratzeko asmotan Donostiari begira eraikitakoaren nahia ezerezean geratu da. Baina

horrek ez du espazioa, haien erara egokitzea oztopatu.

Egungo hondartza ingurua negozioetan kontsumitzaile prestatuta dago, kirol portua, hotela, bungalowak, tabernak kasu. Horrek guztiak kontsumitzaile bultzatzen du, espazio publikoaren erabilera trantsitu eremu izatera murriztu delarik. A tokitik Bra mugitzeko lekua. Egoera honek, identitate edo ezaugarri singular gutxiko leku bilakatu du Antila ingurua.

Herria ere horretara mugatzen ari da. Kontsumo lekuak edo trantsiturako errepide zein espaloiak. Ez dago ordaindu gabe aisialdia igarotzeko apenas lekurik. Lehen kaleek zuten izaera galtzen doa. Gainera, izaera ematen dien espresioak mugatu nahi izatea geroz eta arruntagoa da. Segurtasun, errespetu eta garbitasunaren izenean, agintariek, kalea pasealeku hutsal bilakatu nahi dute. Horretarako, kalearen erabilera mugatuz eta gus-tuko ez dutena ezkutatu.

Hau guztia esanik, kaleak denontzako direla gogorara-zi nahi dut. Bizia kalean egiteko eskubidea dugula, eten-gabe poltsikoari begiratu gabe, gustuko ditugun ekintzak eta dauzkagun kezka zein kexak adieraziz. Ondorioz aldarrikapenen bat egin nahi badugu, aurrera! Eskerrik asko *San Valent Hill!* idatzi zutenei.



Xanti, pozik, eskuetan arbasoa bilatzen lagundu dion liburua.

Lontzo Azpiroz, 17 urteko arbasoa

Oroimenaren kutxa

Ehun eta hamaika urte dira, 111. 1907ko ekainaren 26an gertatu zen: 17 urteko gazte bat Orioko barran ito zen: Lorenzo Azpiroz Maritxalar. Horixe da barra-muturrean dagoen plakan zerrendako lehenengoa, XX. mendean han itotakoetan aurrena.

Iaz, 2017an, Xanti Manterola Azpiroz itotako gazte hartaz gogoratu zen. Ez zekien seguru, baina zerbaitek bere baitan esaten zion bere kastakoa behar zuela, urru-neko senidea.

Niregana etorri zen, nik ere bigarrena Azpiroz dut: *Hí, Iñaki, barran itotako Lontzo hura gure kastakoa izango dek, hik ba al dakik hori?* Ez, nik ez nekien ezer mutil harena, baina Xantik egindako galderak jakin-mina piztu zuen nigan. Eta egun hartan bertan bilaketa-bide bat abiatu zen.

Gaur egun gauzak errazagoak dira garai batean baino. Internet daukagu. Han dena omen dago. Bilatzen jakin behar. Naufragio hitza jarrita, Luis Ojeda izeneko Castroko baten liburua agertu zitzaidan: *Traineras – Naufragios*.

Liburuan Kantauri itsasoan izandako traineru-naufragioak agertzen dira, Galiziatik Hondarribiraino. Trainerua artean arrantzarako ontzia zen garaikoak, alegia XIX. mendearen amaiera eta XX. mendearen hasierako urteetakoak. Itsasontziak mugitzeko baporea asmatu zenean pasatu zen trainerua arrantza-ontzi izatetik kirol-ontzi izatera.

Galernek sortutako istripu larrienak dakartza liburuak. Adibidez, 1912an Bermeon bakarrik 143 arrantzale ito zituena. Donostian Aita Mari arrantzale zumaiarra beste arrantzale batzuk salbatu nahian ito zenekoa. Luis Carril Donostiako patroiz ezagunaren heriotza. Orioko arrantzaleek izandako bi naufragio ere badatoz liburuan: bata, 1901ean balea harrapatu zuen Manuel Olaizola patroia-rena –Karkara 386, 31. orr.–; bestea, Lorenzo Azpirozena.

Honela dakar liburuak Lontzorena: *Según noticias remitidas desde Orio varias lanchas de pesca han naufra-*

gado al regresar de sus faenas. La trainera San Jose, por efecto de un golpe de mar, se partió en dos pedazos, cayendo los tripulantes al agua. Excepto el marinero Lorenzo Azpiroz que pereció ahogado, todos los demás se salvaron. El patrón resultó gravemente herido. Horraino El Día egunkariak istripua gertatu eta bi egunera emandako albistea.

Eta hortik aurrera, zer? Aiako eta Orioko bake epaitegien bulegoetara jo nuen. Bulegoan gordetzen dira jaiotza- eta heriotza-agiriak. Aiakoan, jaiotzarena eskuratu genuen. Oriokoan, heriotzarena; nire birraitona Antonio Iturain orduko udal epaileak sinatua da. Haren arabera, jakin genuen Lorentzo goizeko ordu batean hil zela, *asfixia por inmersión*.

Bagenekien, beraz, noiz, non eta nola hil zen Lontzo. Azken datua falta zitzaigun Xantik eskatu zidana osatzeko: ea gura kastakoa ote zen. Horretan nire osaba-lehengusu Leokadio eta Juan Jose Azpiroz aita-semeek egindako lanak lagundu zidan. Urte batzuk lehenago, Azpiroztarren zuhaitz genealogikoa osatzen ibili ziren. Bai osatu ere! Elizak orain jendearen eskura jarri dituen artxiboetan arakatuz, hainbat mende egin zuten atzeraka, hainbat belaunaldi. XVII. menderaino joan ziren, arbasoen bila, denboraren tunelaren barrena. Haiek osatutako dokumentuaren bidez jakin nuen Lorentzo Azpiroz hura Xantiren birraitonaren anai baten biloba zela. Lehengusu txiki-txiki-txikiak, beraz.

Osatua zegoen ibilbidea. Hortik aurrerako osagaiak irudimenak eman behar zizkigun, orain dela 111 urte gertatutako istripu tamalgarri harenak janzteko: Lontzo, Aiako baserritarra, traineru hartako mutila zen, eskifaia-ko gazteena, txotxoa. Mutil gizajo hark, ia seguru, ez zekien igeri egiten. Poz-pozik zetorren arraunean Itsasotik lehorrera. Handik etxera joango zen. Korrika. Orduan ez zen automobilik. Zain izango zituen senideak. Gero, beharbada, denbora hartuko zuen neskaekin egoteko. Auskalo!

“Ustekabea izan da infografia Column Fiveren zerrendan sartzea”

Saioa Perona

Diseinatzaile grafikoa

Otsaila hasieran, Column Five agentzia estatubatuarrak urteko 75 lan onenen zerrendan sartu zuen Saioa Peronaren infografia bat. Beganismoa eta elikadura osasungarria ditu ardatz aukeratutako lanak.

KARKARA

Idatziz elkarrizketatu dugu Saioa Perona. Urtarriletik Irlandan da diseinatzaile oriotarra, eta e-postaz erantzun dizkigu galderak.

Nolatan Irlandan?

Urtarrilean etorri nintzen, diseinatzaile ibilbidean eten txiki bat egin eta ingelesa ikastera. Bestalde, Irlanda betidanik ezagutu nahi izan dudana herrialdea da, eta horrelako abenturatxo batean ere probatu nahi nuen nire burua. Ekaina bitartean egongo naiz hemen.

Non zaude ostatu hartuta?

Cork hirian, Irlandako bigarren hiririk handienean. Tamainaz, Donostia bezalakoxea dela esango nuke, edozein txokotara hurbildu naiteke oinez. Ondo hartu naute bertakoek, adeitsuak eta umoretsuak dira irlandarrak.

Otsaila hasieran, Column Fivek 2017ko lan onenen zerrendan sartu zuen zure infografia bat.

Column Five agentzia estatubatuarrak eginiko zerrendaren arabera, 2017ko infografia onenen artean dago nire lana. Agentzia honek sailkapena egiteko bilaketa independentea egin du interneten; alegia, nik ez nien nire lanen berri eman, eurek aurkitu dute. Beraz, oso gustura hartu dudana sorpresa izan da.

Norentzat egin zenuen lana?

Iaz Bartzelonako BAU diseinu unibertsitatean burutu nuen *Infografía y Visualización de Datos* masterrean

eginiko lan bat izan da hautatua. Masterrean lan pila egin behar izan genuen, eta haietako bat aukeratu izana, eginiko lanaren errekonozimendua da. Infografia maila onekoa dela aitortzen dizu erakunde batek. Ez da gutxi.

Column Five agentziak prestigio handia al du?

Diseinu munduan bai, Google, Microsoft, Visa edo Spotify bezalako bezeroekin egiten dute lan.

Zein dira infografia on batek izan beharreko ezaugarri nagusiak?

Infografia, informazioa irudi eta testu bidez modu grafiko batean adieraztea da. Infografia on batek gai bati buruz *zergatik?*, *non?*, *nola?*, *noiz?* eta horrelako oinarritzko galderak garbi erantzun behar ditu. Ezaugarri garrantzitsuenetakoa lehen begiratuan interesa piztu behar duela da, horren arabera murgilduko baita irakurlea infografiaren bigarren mailako xehetasunetan.

Lan nekeza izan al zen infografia garatzea? Alegia, ordu asko sartu al zenituen?

Horrelako infografia oso bat egiteak lan eta ordu asko eskatzen ditu. Lehenik, informazioa bilatu behar da iturri fidagarrietatik, eta behin bildutakoan, informazioa sintetizatu behar da eta punturik garrantzitsuenak aukeratu. Hau egindakoan, lehen zirriborroak egiten hasten zara paperean, honela, konposiziorik egokiena lortzean, ordenagailuarekin hasten zara lana gauzatzen. Eta azken bertsiora iristea kostatzen da, beti ikusten



“Beganismoa animaliekiko jarrera axolagabearen aurrean hartzen den jarrera politikoa da”

baita fintzeko zerbait.

Aukeratutako infografiak beganismoa eta elikadura osasungarria ditu ardatz. Zein du komunikazio helburu nagusia?

Plano nagusian, elikadura begano osasuntsua jarraitzeko jarraibideak ematen dira; bigarrenean, begano izateko arrazoiak aipatzen dira etikan, ingurumenean eta osasunean oinarrituta; azken atal batean, beganismoari buruz jende ezagunak eginiko aipu batzuk daude, hala nola, Pitagorasena edo Anna Sewell-enak.

Zu beganoa al zara?

Bai, arrazoi etikoengatik. Askori beganismoa dieta soilak dela iruditzen zaie, baina hortik harago, animaliekiko dugun jarrera axolagabearen aurrean hartzen den jarrera politikoa da. Begano batek, animalia guztientzat bizitza duina nahi du.

(...)

Gaur egun, munduko txoko honetan behintzat, bizirauteko ez dugu animalien beharrik. Alegia, komunitate zientifikoan jakina da, batetik, animalia ez-gizakiek gure antzera sentitzeko gaitasuna dutela, eta bestetik, osasun betean egoteko ez dugula animalia jatorriko produkturik jan beharrik. Beraz, euren bizitza errespetatzea minimoa iruditzen zait.

Eta erraza al da eguneroko martxan dieta hori eramatea?

Bai. Sukaldean ez dit lan askorik ematen. Osagaiak edozein supermerkatuetan aurki daitezke: barazkiak, fruta, lekaleak, fruitu lehorrak...



Maidor Arrillaga Sarasola · 138. Kol. zenb.
Arrantzale 63 · 20810 · Orio · Gipuzkoa
Tel. 943 575 361

ninarri
PODOLOGIA ZENTROA



ORIA
hertz klinika

Arrantzale kalea, 63 behea
20810 ORIO
Tel.: 943 83 36 45

Orio Hertz Klinikak **ORTODONTZIA** zerbitzu berria jarri du martian.
Prebentzioa ezinbestekoa dela jakinda, hartu aurre ekintzetan sor daitzekkeen arazoak.

TAILER MEKANIKOA AUTO LAN



Pelotari 5, Orio
943 83 00 34

Zure Konfidantzazko
Gertuko Tailerra

Katu Horia
ORIO GIZARTZA KLUBA

ESTROPALARI, 10
20810 ORIO
tel. 943 11 66 99

Larrialdia: 668 89 11 29

www.katuhoria.com



OREKA
FISIOTERAPIA

Tendinitisak
Lumbalgiak
Artrosia
Zefaleak

Masaje terapeutikoa,
bentonek, akupuntura,
eskuak terapia,
osteopatia

943 13 35 37
Aritxaga kalea, 11 behe



KORTABERRI
arotz lanak

Imanol Illarramendi
Aia (Gipuzkoa)

kortaberri.arotza@hotmail.com 665 70 33 47

Auto Azkue



Tf: 943 130 438

Auto Azkue

Ille apaindegia
MARIJO



Neska eta mutilentzat

Eusko Gudari, 8 - behea
Tel. 943 13 47 29
ORIO

URANGA
burdindegia

Opari, menaje eta erremintak

fer.uranga@euskalnet.net
Telefax: 943 8312 36 Eusko Gudari, 5

URAITZ
Lurrindegia
jantzi-sagarriak

Enbata 3 Tf: 943 83 18 97

LUXARBE
igeltseritza

Igeltseritza orokorra, denetarik egiten dugu. ☒

Presupuestoak eskatu konpromisorik gabe ☒

Lan txukuna eta merkea ☒

Tfnoa: 943 83 59 00



mauka

PAPERDENDA LIBURUAK ETA OPARIAK

TEL: 943 572 083
FAX : 943 571 190
lasenjo@hotmail.es

INES ASENJO
ABESLARI, 1
20810 ORIO



kutixi
kafetegia
GOSARI GONDOAK

Aritxaga 9, 20810 Orio
Tf: 943 13 13 17

PERTSIANAK
AKO MAZ



Aluminio, PVC
Venezianak
Motorrak...

Tel. 943 13 29 01 Mugikorra 600 70 52 27

ZARAGUETA HERRI ESKOLA



“16 urte egin ditut Zaragueta eskolan”

Marije Azkue

Zaraguetako irakaslea

Marije Azkue, Zaragueta Herri Ikastetxeko langilea da. Urte askotan irakasle eta zuzendaritza taldean ibilitakoa ere, aurtun du azken lan urtea. Solasaldi batean, 6. mailako ikasleek berarekin hitz egiteko aukera izan dugu.

Nongoa zara?

Oriotarra naiz.

Zenbat urte daramatzazu Zaragueta eskolan lanean?

16 urte egin ditut Zaragueta eskolan.

Zein lanpostutan egon zara?

Haurreskolako tutore, idazkari eta zuzendari.

Oso ezberdinak al dira lan horiek?

Bai, oso desberdinak!

Zeinetan egon zara gusturago?

Tutore.

Txikitatik pentsatzen zenuen irakasle izatea?

Ez, ez neukan garbi.

Zer da irakaskuntzatik gehien atsegin duzuna?

Umekin egotea, jolastea, abestea,... da gehien atsegin dudana.

Eta gutxiena?

Papeleo guztia egin beharra.

Irakasle izateaz gain, beste lanbiderik izan al duzu?

Etxeko lanak egitea.

Ze eskolatan ikasi zenuen?

Txikitan Orioko eskolan, Zarautzen 11-14 urte arte, Donostian 14-19 urte bitartean eta han bertan magisteritza ikasi nuen.

Zer duzu pentsatua egitea, etapa berri honetan?

Ez dut oraindik pentsatu.

Zer da zure aisialdian gehien egitea gustatzen zaizuna?

Liburuak irakurtzea, eskulanak egitea, paseatzea...



Joel Moreno
eta Urko Gazpio

Orioko birziklapena



rion birziklapen tasa txikia da, jendeak ez du ia birziklatzen.

Kalean zehar joatean edozer gauza ikus dezakegu lurrian: pipa paketeak, lixiba botilak etab. Gozoki denden ondoan lurra oso zikina egoten da eta ezinezkoa da ezer nazkagarria zapaldu gabe pasatzea. Ibaiaren ondotik ala moilatik pasatzekotan uretan dauden gauzek atentzioa ematen dute, ez baliotsuak direlako, lotsa ematen duelako baizik. Izan ere, zabor horrek ez du grazia handirik egiten: gasolina poteak, konoak, motorrak, aterkiak....

Horregatik normala da birziklatze tasa %42koa izatea.

Konpontzeko proposamen asko eman ditugu udaletxean eskola bezala, baina ez digute kasu handirik egin. Horregatik zerbait hobetzeko, hemen zakarrontzien egoera hobetzeko proposamena aipatu nahi dugu.

Batetik, gozoki denden inguruan zakarrontzi handi bat jarri beharko zen, dendetakoak egunero gainezka egoten direlako. Bestetik, futbol zelaiaren ondoko pasean zakarrontziak erorita daude eta ondo egongo litzateke berriro zutik jartzea.

Herritarren parte-hartzea udalbatzarraren bilkuratan



Udal baten funtzionamenduan, udalbatzarrak izan ohi dira publikoari irekiak dauden bilkura bakarrak. Hilero egiten dituzte normalean, eta herritarren asistentzia ez da oso handia izaten.

Proposamenetik udalbatzarrerera

Indarrean dagoen legeak -7/1985 apirilaren 2koa, Tokiko erregimeneko oinarritzko legea- agintzen du udalean lantzen diren zein gai onartu behar diren udalbatzarrean. Alkateak baditu eskumen propio batzuk -fakturak onartzea, udal-obretarako baimenak ematea, bandoak egitea...- baina beste gai batzuk udalbatzarrean joan behar dute derrigorrez: udal aurrekontuak, langileen plantilla organikoa, lanpostuen zerrendak, inbentarioak...

Udalean lantzen diren gaiak herritarrek edo alderdi politikoek proposatutakoak izan daitezke. Azken

horiek, zuzenean batzorde informatzaileetan sortzen dira, baina, Udaleko idazkariak dioenez, gai gehienak herritarrek planteatutakoak izaten dira. Gai horiek idazkaritzara iristen dira eta, handik, dagokien departamentuetara bidaltzen dituzte.

Udalbatzarrerera joaten diren gaiak aldeztu aurretik diktaminatu behar dira dagokion batzorde informatzailean. Orioko Udalean sei batzorde informatzaile daude, eta horietan talde politiko guztiak daude ordezkatuta. Adibidez, egunotan lantzen ari diren aurrekontuak Ogasuna, Pertsonala eta Kalitateko batzorde informatzailean eztabaidatu eta diktaminatu dira. Horrela, batzordeetan diktaminatzen diren gaiak udalbatzarrerera eramaten dira eta han horien onarpena bozkatzen da.

Kasu batzuetan, batzorde informatzailean diktaminatu gabeko gaiak zuzenean eraman daitezke udalbatzarrerera.

Urgentziakoak izendatzen diren gaiak dira, eta udalbatzarrean gehiengo absolutuarekin onartu behar dira -Orioko kasuan, 13tik 7 botorekin-.

Herritarren parte-hartzea

Batzorde informatzaileetako bilkurak ez dira irekiak herritarrentzat. Hala ere, gai bat proposatu nahi duen talde edo elkarteek eska dezake batzordean bere gaia aurkeztea.

Udalbatzarraren bilkurak publikoak dira eta herritarrek eskariak eta galderak izeneko atalean parte hartu ohi dute. Legearen arabera, berez, oposizioko zinegotziek alkateren eta gobernuan dagoen alderdi politikoa- ren gestioa kontrolatzea du helburu atal horrek. Askotan, ordea, zinegotziek beren esku-hartzea amaitzen dutenean herritarrei hitza ematen die alkateak.



EAJ

Udala eta herritarren hurbiltasuna lantzen

Udal plenoa, gaien eztabaidarako eta hauen inguruan hartu beharreko erabakiak adosteko organoa da. Orioko Udaleko plenoetara jendea kezkak argitzera ez joatearen arrazoiak anitzak izan daitezke, herritarren egoera desberdinen arabera. Besteak beste: plenoen ordutegia eta familien kontziliazioa, denbora falta, interes eza, politikarekiko urruntasuna, eta abar. Orioko EAJren ustez, herritarrek dituzten eskubide eta betebeharrak ondo ezagutzen dituzten eta hauetaz baliatzeko nahikoa bide ba ote dagoen kezkatu behar gaitu. Kezkak argitzeko bideak, egon badaude. Adibidez eta kezka motaren arabera: udaletxera deituz, modu telematikoa udalarekin harreketan jarritz edo eta alkatearekin zuzenean ordua eskatuta, idazkaritzan galdetuta edo zinegotziekin hitz eginda. Udalaren eta herritarren elkarrenganako hurbiltasuna indartzeko lanean dihardugu eta bide horretan lanean jarraituko dugu ahalik eta bide gehienak zabaltzen.



Orain

Galdera-erantzuna

Joan al zara inoiz Orioko udalbatzar batetara? Hilero azken asteartean egiten dira eta modu zuzena da zalantzaren bat argitzeko edo kezkaren bat azaltzeko. Zergatik ez agintarien erantzuna zuzenean jaso?

Hauteskundeak izan aurretik alkategaiekin Kultur Etxean egiten den mahai ingurua jendetsua izaten da, alkategaiei galderak egiten zaizkie eta hauek zuzenean erantzuten dute. Zergatik ez udalbatzarretan alkateari edo zinegotziei galderak egin eta erantzunak jaso?

Hurrengo plenoan 2018rako aurrekontuak onartuko dira. Oriotar bakoitzak, izan umea, gaztea edo heldua, 1.300 euro jartzen ditu zuzenean edo zeharka. Zaborrontzi berriek jartzeak merketu egingo digu tasa epe motzera? Zenbat gastatu da eta gastatuko da Mutiozabalen? Aurreikusten al da Aizperroko industrialdea martxan jartzea? Zubi berria egitea planteatu da Aldundian legealdi honetan?



EH Bildu

Begirune kontua

Udalbatzarreko gai-zerrendako puntu guztiak eztabaidatu ondoren, eskariak eta galderak datoz eta hor herritarrek aukera daukate beren kexak agertzeko edo zinegotziei azalpenak eskatzeko. Kanean kexa asko entzuten ditugu, baina plenora ez da jendea etortzen, zergatik? Batetik, noizbehinka etortzen diren herritarrei ez diegulako merezi duten arretarik jartzen: plenoak oso astunak izaten dira eta, herritarren txanda iristen denean, gehienetan alderdiok bata besteari kontuak eskatzen hasten gara, gure arteko ika-mikan. Eta ze mailatan, gainera! Seguru asko, bat baino gehiago bueltatu da etxera berriro etortzeko gogoa galduta; beraz, badugu non aldatua. Bestetik, kritikak edo kexak egiteko garaian, sanoena ez izan arren, erosoago egiten zaigu, zuzenean jardun beharrean, zeharka jardutea. Herritarrek udaletxera gerturatzeari nahi badugu, bertan eroso sentitzeko modua eskaini behar diegu. Gertutasunean eta parte-hartzean dago kakoa, eta hori egunero landu behar da.



PSE-EE

Iritzirik ez

Hilabete honetan PSE-EEK ezin izan du ritzia idatzi.



Gaia

Otsailaren 25ean izango da Aiako VII. Mendi Lasterketa

Zazpigarrenez, Aiako Kirol Elkarteak otsailaren 25erako antolatu du Mendi Lasterketa. Goizeko 10:30ean Aiako herriko plazatik hasi, eta 15 kilometroko ibilbidea egin ondoren, leku berean amaituko da lasterketa. Duela lau urtetik, ibilbide bera du lasterketak: Arreta aldera abiatuko dira lasterkariak, eta Olarteta Gainera igoko dira ondoren. Murugul Gaina pasa ostean, Artetxotara jaitsi, eta Sagastizabal zeharkatuta iritsiko dira berriz ere Aiako herriko plazara. Eguraldia lagun badute, parte hartzaile guztiekin hamaiketako egingo dute, plazan bertan.

Otsailaren 23ra arte izango da lasterketan izena emateko aukera, kirolprobakom helbidean. Txip horiarekin, 15 euroko kostua izango du eta txip horirik gabe, 18 eurokoa. Izena emateko, 16 urte baino gehiago izan behar direla jakinarazi dute antolatzaileek; eta ez da beharrezkoa izango kirol talde bateko kide izatea. 400 lasterkarirentzako kupoa prestatu dute, eta otsailaren 23rako betetzen ez bada, egunean bertan ere izango da izena emateko aukera; 25 euroren truke. Inguruko herrietako lasterkarien parte hartzea errazteko, frontoiko eta eskolako duxak irekiko dituzte. Arropa gordetzeko zerbitzua ere izango da, Kultur Etxean.

Gizartea

Traste zaharrak biltzeko zerbitzua astero izango da

Hondakinen bilketan egin dituen aldaketen artean, traste zaharrak biltzeko zerbitzua ere hobetu egin du Urola Kostako Udal Elkarteak. Zerbitzu hori, aurrerantzean, astero emango du Udal Elkarteak -lehen bi astetik behin izaten zen-. Zerbitzu honen bidez, etxeko altzariak, tresna elektrikoak eta traste zaharrak biltzen ditu Udal Elkarteak, kosturik gabe. Herritarrek egin behar duten gauza bakarra asteartetan, 20:00etatik 22:00etara beren hondakin handiak hondakin-guneetara eraman. Ez dago alde zuretik abisatu beharrik, trasteak uzteko eta trasteak herriguneko edozein hondakin-gunetan utzi daitezke; baina baserri inguruetakotan, ez. Asteroko bilketa honez gain, herritarrek aukera daukate noiznahi Garbigunera joateko, trasteak han uztera.

Kultura

Mutiozabal ontziola monumentu kategoriako kultura-ondasun izendatu du Eusko Jaurlaritzak

Eusko Jaurlaritzak Orioko Udalarri jakinarazi berri dio Mutiozabal ontziola Euskal Kultura Ondarearen Inbentario Nagusian inskribatu duela, monumentu kategoriako kultura-ondasun gisa. 2018an Orioko Udalak Mutiozabal ontziolako lanen bigarren fasea egiteko asmoa du, ontziolako ateak ahalik eta azkarren ireki ahal izateko.



Gizartea

Arantzazura eta Itziarko Salegi jatetxera irteera

Urtero bezala, Arantzazura irteera antolatu du Zaharren Babeslekuak martxoaren 14rako. Arantzazuko mezara joango dira, eta ondoren, 14:30ean, bazkaria egingo dute Itziarko Salegi jatetxean.

Txartelak martxoaren 6an salduko dituzte, arratsaldeko 16:00etatik 18:00etara, 35 euroren truke. Autobuseko plazak zozkatu egingo dituztela esan dute antolatzaileek, eta bigarren autobusa antolatzeko, gutxienez 20 lagunek eman beharko dute izena.

Orioko Mendi Lasterketa jokatuko da martxoaren 4an



Aiako Mendi Lasterketa baino astebe-
te beranduago jokatuko da Oriokoa,
zehazki, martxoaren 4an. 9:30ean
emango diote hasiera probari herrian
bertan, eta 21 kilometroko ibilbidea

egin ostean itzuliko dira lasterkariak.
Orioko Herri Ikastolatik Puntarrirako
bidea hartuko dute, eta Luxarbetik
pasa ondoren, Orkolagara iritsiko dira;
ibilbidearen erdira iritsiz. Orkolagatik

hartuko dute berriz ere ikastolarako
bidea. Lasterketa Orioko "mendialde
ederra" aurkezteko modua izan nahi
duela adierazi dute antolatzaileek, eta
ibilbideak mendiko eta itsasoko bistak
uztartuko dituela aurreratu dute. Guzti-
ra, 1.200 metroko desnibela izango du.
Lasterketa hasi baino lehen, ikastolan
bertan banatuko dituzte dortsalak,
eta parte hartzaile guztiek jasoko
dute kamiseta opari. Ikastolan bertan
kontsigna eta aldagela zerbitzua ere
izango dela aurreratu dute, eta Karela
kiroldegiko dutsak zabalduko dituzte.
Martxoaren 2ra arte eman daiteke
izena, kirolprobak.com helbidean. Txip
horiarekin, 20 euroko kostua izango
du eta txip horirik gabe, 21 eurokoa.
Gehienez ere, 450 lasterkarik izango
dute izena emateko aukera.



**ETORKIZUNA
ERAIKIZ**

**Gipuzkoaren etorkizuna
guztion ardura da. Eraiki
dezagun guztion artean.
Aurea hartzea da
horretarako modu
hoberena.**

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa



**ETORKIZUNA
ERAIKIZ**
El futuro de Gipuzkoa

gipuzkoa.eus/etorkizunaeraikiz

AGENDA

Orio

Dantza emanaldia

- Otsailaren 24an, Danbolin musika eskolaren dantza emanaldia, 17:00etan Karela kiroldegian.

Kirola

- Martxoaren 4an, Orioko Mendi Lasterketa, 9:30ean, Ikastolatik hasita.
- Martxoaren 11n, ibilaldi neurtua. 8:30etatik 9:00etara Ikastola aurretik abiatuta.

Antzerkia

- Martxoaren 2an Heroia antzerkia, 22:30ean Kultur Etxean.

Martxoak 8

- Martxoaren 7an Emakumea eta itsaso. Arrantzale komunitateak genero ikuspegitik hitzaldia, 18:30ean Salatxo Aretoan.

AGENDA

Lan eskaera

- Rosa lan bila, etxetik kanpo helduen zaintzan. Esperientzia eta paperak ditut. Tf: 663117579
- Ume zaintzan zein etxe-ko lanak egiteko lan bila dabilen 29 urteko neska euskalduna naiz. Adin desberdinetako haurrekin hezitzaile eta irakasle bezala esperientzia dut. Tf: 638730544
- Lan bila nabil, etxe barnean edo kanpoan egiteko: haur eta helduen zaintzan, ospitalean konpainia egiten... Gazteleraz, arabieraz eta euskaraz zerbait dakit. Tf: 612488307

Salgai

- 140m2ko etxea lurrekin salgai Oriotik 10 eta Aiatik 5 minutura. Etxeak 4 logela, 2 komun eta

- Martxoaren 8an, elkarretaratzea 19:00etan Herriko Plazan. Ondoren, Emakumeen afaria Balea elkarte

Musika

- Otsailaren 24an Xaltxa Badago jaialdia, 17:30etatik aurrera.
- Martxoaren 19tik 23ra musika astea.

Aia

Kirola

- Otsailaren 25ean, Aiako Mendi Lasterketa, 10:30ean Aiako plazatik hasita.

Podologoa

- Martxoaren 24an podologoaren kontsulta, sendagilearen etxean. Aurrez ordua hartzeko: 943131144

garajea ditu. Familia eta lagunekin gozatzeko por-txe eta zelai zoragarriak ere bai. Oso argitsua. Berehala bizitzen jar-tzeko dago. 300.000€. Tf:657701911

- Aiako aurtengo intxau-rrak salgai: 4 kilo 22€, tamaina onekoak, etxera eramanda. Pati deitu: 943 132131 edota 634 424 887
- Euskal Artzain eta Border Colie arrazako txakurkume mestizoak salgai. Tf: 634410993
- 70 m2-ko pisua salgai Orion, Eusko Gudari kalean. Bereizirik, 15 m2-ko ganbara. Pisuak 2 gela, egongela eta sukaldea ditu. Erdigunean koka-tua, eguzkitsua, 2 balkoi -E. Gudari kalera eta Do-nibane kalera-. Horma-armairua. Igogailurik ez dago. Berehala bizitzen

jartzeko dago. 150.000€ Tf: 639987645

- Etxebizitza salgai Aiako Santio auzoan. 91 m2, egongela zabala, 3 gela, 2 bainugela, garajea eta 2 trasteleku Erabili gabea, altzaririk gabea. 172.081,82 Euro. Tf: 660455530 -Gorka-

Erosi

- Bi logelako etxebizi-tza erosi nahi dut. Tf: 652731121

Alokairua

- Etxea alokagai Orio erdigunean, 4 logela ditu eta oso argitsua da. Epe mugaturako izango da. Tf:647576763
- Bikote oriotarra aloka-tzeko etxe baten bila. Tf: 697933663

ITSASOA

	ITSASGORA	ITSASBEHERA	ILARGIA
01	3:50 eta 16:17	9:58 eta 22:14	☉
02	4:35 eta 16:59	10:43 eta 22:57	☉
03	5:17 eta 17:40	11:24 eta 23:39	☉
04	5:58 eta 18:19	12:05 eta _____	☉
05	6:37 eta 18:58	0:19 eta 12:44	☉
06	7:16 eta 19:36	0:59 eta 13:23	☾
07	7:57 eta 20:17	1:40 eta 14:04	☾
08	8:40 eta 21:04	2:24 eta 14:49	☾
09	9:34 eta 22:06	3:16 eta 15:43	☾
10	10:47 eta 23:28	4:21 eta 16:53	☾
11	12:17 eta _____	5:42 eta 18:13	☾
12	0:51 eta 13:31	7:00 eta 19:23	☾
13	1:54 eta 14:24	8:00 eta 20:16	☾
14	2:40 eta 15:05	8:45 eta 20:58	☾
15	3:18 eta 15:40	9:23 eta 21:35	☾
16	3:53 eta 16:12	9:57 eta 22:09	☾
17	4:25 eta 16:44	10:31 eta 22:43	☾
18	4:57 eta 17:16	11:04 eta 23:16	☾
19	5:30 eta 17:49	11:38 eta 23:52	☾
20	6:05 eta 18:23	12:14 eta _____	☾
21	6:42 eta 19:01	0:29 eta 12:52	☾
22	7:23 eta 19:45	1:10 eta 13:35	☾
23	8:12 eta 20:38	1:58 eta 14:25	☾
24	9:13 eta 21:47	2:56 eta 15:27	☾
25	11:35 eta _____	5:09 eta 17:44	☾
26	0:14 eta 19:09	6:34 eta 19:09	☾
27	1:42 eta 20:23	7:56 eta 20:23	☾
28	2:52 eta 21:23	9:03 eta 21:23	☾
29	3:47 eta 22:13	9:56 eta 22:13	☾
30	4:35 eta 22:57	10:42 eta 22:57	☾
31	5:17 eta 23:38	11:23 eta 23:38	☾

ZAINTZAKO BOTIKAK

MARTXOA:

- Ilean, Etxeberria
- 2an, Gallo
- 3an eta 4an, Izpizua
- 5etik 9ra, Lasa
- 10ean eta 11n, Zulaika
- 12an, Iturria
- 13an, Etxeberria
- 14an, Gallo
- 15ean, Izpizua
- 16an, Zulaika
- 17an eta 18an, Iriarte
- 19an, Etxeberria
- 20an, Gallo
- 21an, Lasa
- 22an, Iturria
- 23an, Iriarte
- 24an eta 25ean, Gaminde
- 26an, Iriarte
- 27an, Lasa
- 28an, Zulaika
- 29tik 31ra, Esparza

- **Azaldegi:** Urdaneta kalea, 8. 943 13 31 83 Zarautz
- **Etxeberria:** Gipuzkoa ka-lea,17. 943 83 23 98 Zarautz
- **Mutiozabal:** Kale Nagusia, 12. 943 83 29 70 Zarautz
- **Larrañaga:** S. Frantzisko, 16. 943 13 38 14 Zarautz
- **Lasa:** Herriko plaza. 943 83 09 36 Orio
- **Gallo:** Zigordia kalea, 17. 943 13 40 19 Zarautz
- **Gaminde:** Gipuzkoa kalea,68. 943 47 75 84 Zarautz
- **Iriarte:** Zinkunegi, Pilartxo Enea. 943 13 29 83 Zarautz
- **Zulaika:** Bizkaia kalea, 41 943 13 39 94 Zarautz



VILLA ANTILLA
HOTEL & THALASSO

ZATOZ ASTEAN ZEHAR DAUKAGUN MENU BIKAINA ETA ASTEBURUKO MENU BEREZIAK DAZTATZERA.

EGUNEKO MENUA

ASTELEHENETIK OSTIRAL EGUERDIRARTE
13:00 ETATIK 15:30 AK ARTE
20:00 ETATIK 22:30 AK ARTE

14,50€

MENU BEREZIA

OSTIRAL GAUETIK IGANDERA
13:00 ETATIK 15:30 AK ARTE
20:00 ETATIK 22:30 AK ARTE

25 / 32€



VILLA ANTILLA
HOTEL & THALASSO

MARIDAJE MENUA

Ahuokate, abakando eta mango raviolla, tigre esnearekin - Ameztoi 2017 D.O. Txakoli de Getaria

Ostra hotz - berdea olio salda eta txitxirioekin - Primus Circumdedit Me 2016 D.O. Getariako Txakolina

Itsas plankton vichyssoise-a, bileira errea eta fole txirbilekin - Kirikilla 2016 D.O. Getariako Txakolina

Behi aspizun marinatua aspizetakoak, idiazabal krema eta ospin-elurrarekin - Rubentis 2017 D.O. Getariako Txakolina

Iberiar hirugihardun zigala katalifarekin babarrun nabar-krema gainean, hortzifutako sojaz - Stimatum 2016 D.O. Getariako Txakolina

Irasagar-miliorria, txokolatzeko zopa eta idiazabal izozkilekin - Hija de Rubentis 2016 D.O. Getariako Txakolina

**Ameztoi Txakolindegiko maridaje afaria
+ musika zuzenean**

MARIDAJE +BLUES & SOUL

2018 MARTXOAK 9a
21:00etan

65,00€ / PERTSONAKO

*OSTATUA HARTZEKO PACK-AREN PREZIOA

99,00€ / PERTSONAKO




ERRESERBAK 943 892 102 · reservas@villaantilla.com · HONDARTZA BIDEA 1, ORIO · HONDARTZA AURREAN

NAFAR HEGOALDEKO UZTA
ESKUTIK ESKURA

ZUBI BAT
SUKALDERA
MARTXOAK 6 - 20

ESKATU SASKIAK KARKARAN

Orioko Kultur Etxea - Eusko Gudari 26
943 83 15 27 - karkara@karkara.com

ERRIGORA

Eskatu oliba-olio, bidia-estra eta kontserba-sortak euskaraz etiketatuta eta ekolizearen jatorrizko prezioan